



Boluntarioen sarea hedatzeko deia

04

Eskualdeko zortzi gizarte erakundek boluntariatza sarea eratu dute, eta laguntza behar dutenekin lan egiteko boluntarioak biltzeko kanpaina abiatu dute.



Genaro Zelaieta Berako futbolari ohia hil da

41

Denbora luzean gaixorik egon ondoren, otsailaren 9an zendu zen Genaro Zelaieta Berako futbolari profesional ohia. Biliga eta Superkopa irabazi zituen Realarekin.

2008ko otsailaren 28a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

ESPEZIEAREN GAINBEHERA DELA ETA

03 Denboraldi honetan ezin izanen da amuarrainik arrantzatu



martxoak 5 asteartekoa

Eskularen erakusketa larri bilaketa.
Goizez 11:00-13:00; arratsaldez 18:00-20:00

martxoak 6 osteguna

18:00 Eskularen ERAKUSKETAren IREKIERA
19:00 IRUIN-KONTALARIA Estiku Mentaberri
(Mujer de mil caras) liburutagian

martxoak 7 ostirakoa

18:00-19:00 Eskularen ERAKUSKETA
19:00 Volver PELIKULA
(Pedro Almodovar)
21:30 AFARIA Zubiondo jabetzeen (epuratzeko datu 948 533 54 72ra)

martxoak 8 larunbata


11:00-13:00 / 18:00-20:00 Eskularen ERAKUSKETA

martxoak 9 igandea

11:00-13:00 / 18:00-20:00 Eskularen ERAKUSKETA

martxoak 10 astelehena

Ereusketan egondako larri bilaketa. Goizez 11:00-13:00; arratsaldez 18:00-20:00

**BERA** EMAKUMEON ASTEA

Kultur Etxean

martxoak 8
EMAKUMEON
NAZIOARTEKO EGUNA



urte bat
gehiago,
pauzu bat
aurrerago!


SAN FRANCISCO JAVIER

Haur eta Lehen Hezkuntzako
Ikastetxe Publikoa

Elizondo. Tfnoa/Faxa: 948 581808.
e-posta: cpelizon@pnte.cfnavarra.es

MARTXOAREN
10etik 17ra.

Eskola publikoa aurrerantz !



DATUAK...

- Amuarrain gutti dagoelako, arrantza debekatu du Nafarroako Gobernuo Ingurumen Departamentuak.
- Bertze neurrien artean debekua da guztietan eztabaidatsuen, eta Nafarroako erreketako 1.161 kilometrotan du eragina. Horrekin batera, zaintza areagotuko da.
- Araudia, ordea, ez da arrantzaleen gustukoa. Hartzen diren erabakiak beti arrantzaleen kontrakoak direla nabarmendu digu Jose Mari Mitxelena Berako arrantzaleak.

Jose Mari MITXELENA *Berako arrantzalea*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Gobernuaren politika txarra eta lertxunak, krisiaren arduradunak»

Gurutze PIKABEA

Zein da amuarrain arrantzaren debekuari buruz arrantzaleen iritzia?

Ez nau harritzen erabakiak, urtetik urtera amuarrain kopurua jausten ari baita. Baina beti neurriak arrantzaleen aurkakoak dira. Lehen errekei lagundu egiten zitzairen eta Bidasoan, Artikutzako erreketan eta Urumearen Nafarroako aldean milioika arraultza eta amuarrain tiki botatzen ziren. Baina duela 18-20 urte Gobernuo teknikariak bertze bidea aukeratu zuen eta geroztik ez dugu gauza onik izan. Errekak euren gisara utzi eta ez zitzaie lagundu behar erran zuen. Birpopulazioa alde batera utzi zen eta beherantz egin du kopuruak. Azkenean ia amuarrainik gabe gelditu gara. Azken urte hauetan laguntzen hasi direla dirudi baina ez da nahikoa, aunitzez gehiago lagundu beharko lukete.

Amuarrainak desagertzeko arriskuan daude?

Ez dut uste desagertuko direnik, baina egoera makur dago. 1970eko araudiarekin errekei lagundu egiten zitzairen, eta gainera, arrantza haztegi gehiago ireki behar zituztela erraten zen. 90.

«Lertxunek amuarrain asko jaten dituzte, eta lertxunak garbitzen ez baditugu ez dago deus egiterik.

Horrekin batera, birpopulatu behar dira errekek, lehengo milioi arraultza haiek berreskuratu»

hamarkadan Gobernuo teknikaria etorri zen eta, bere politika txarra eta lertxunak dira krisiaren arduradunak. Duela 20 bat urte Plaiaundin lertxunen ehi za debekatu zenetik hasi dira honat etortzen. Ubarroiei egurra ematen zaie, baina lertxunei ez, eta amuarrain asko jaten dute, kilo erditik goiti, eta lertxunak garbitzen ez baditugu ez dago dues egiterik. N-121A errepideko lanekin nahiko nahasiak dabilta baina noiznahi goiti eta beheiti bueltaka ikusten ditugu. Horrekin batera, birpopulatu egin behar dira errekek, ez oraingo 100 edo 150 mila arraultza edo amuarrain ttikiekin. Lehengo milioi haiek berreskuratu behar dira.

Beranduegi erreakzionatu du Gobernuak?

Hainbertze urte pasatu dira Gobernu-

ko teknikaria etorri zenetik... Orduan 25 amuarrain arrantzaten ahal genituen, 19 zentimetrokoak; amuarrainaren beherakadarekin, ordea, 19tik 22ra igo zuten tamaina, eta kopurua murriztu zuten. Eta gero eta guttiago. Neurriak zorrotz joan dira, baina arazoa ez da hori. Lehen Lesakako Matxain aldean, 60-100 amuarrain zeuden lekuan, orain, hamarretik bat dago.

Kontrola eta zaintza haunditzeko neurriak ere hartu nahi dira...

Kulpa beti bertzeari. Arrantzaleak amorraina ateratzean, gelditzen denarekin guttiago dago, ados. Baina errua ez da arrantzalearena. Arrantzaleak kontrolatzen du erreka, eta bera da erreka nola dagoen dakiena.

Baina izokinak arrantzatu daitezke...

Bai, baina hori ere nahiko motel dago, ni hasi nintzeneko urteekin konparatuz, 30 bat urtetik goiti. Gainera, N-121Ako lanetan leherketak direla eta baliteke asteburuetan bakarrik uztea arrantzaten, eta asteko egunetan ez. Ez dute debekatu baina... Garai batean aingirak ere arrantzaten genituen Bidasoan, baina izokin arraultzak jaten zituztela eta, eraman egin zituzten.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Ezkerretik hasita, Beatriz Oiartzabal (Anfas), Joxean Subizar (Caritas), Marian Biurrarena (Elkarrizan), Isidro Herguedas (Bidelagun), Leire Satrustegi eta Isabel Pardo (Aspace), Marisa Amunarriz (Sahararen Aldeko Elkartasun Taldea) eta Irantzu Izeta (Xauli). Argazkian Dizdira-Anasaps erakundeak falta dira.

Lanerako boluntarioak behar dituzte eskualdeko gizarte erakundeetan

EZINDUEI ETA GABEZIREN BAT DUTENEI LAGUNTZEKO

«Bizitzak baditu oraindik ezagutzen ez dituzun bideak. Etorri gurekin!» Ilopean Eskualdeko Boluntariotza Sarea eratu dute Baztan, Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdi aldeko zortzi gizarte erakundeek. Helburua ere argia da: boluntarioak biltzea. Edozeinek musu truk eta esfortzurik gabe egindako zerbait, beharra duen harentzat ezinbertzekoa izan daitekeelako. Hain zuzen, Xauli, Sahararen Aldeko Elkartasun Taldea, Aspace, Bidelagun, Elkarrizan, Caritas, Anfas eta Dizdira-Anasaps dira kanpaina martxan paratu duten eragile sozialak. Inguruan sortzen diren beharrei erantzuna eman nahi diete eta horretarako martxoaren 8ra bitarte boluntarioak biltzen ahaleginduko dira. Haurrekin edo xaharrekin egoteko, eriei laguntzeko edo etorkinei esku bat luzatzeko prest dagoenak erakunde hauetara jo beharko du. Bortzirietan Elkarrizan elkartearen telefonora deitu beharko da (635 005266) eta gainerako lekuetan, berriz, Bidelagun erakundearen telefonoetara (948 581327 edo 679 435174).

Gurutze PIKABEA

Joan den urteko ekainaz geroztik lanean ibili ondotik, otsailaren 7an aurkeztu zuten Eskualdeko Boluntariotza Sarea, behar dutenei laguntzeko boluntarioak biltzeko sare berria. Xauliren izenean Irantzu Izetak hitz egin zuen; Sahararen Aldeko Elkartasun Taldearen izenean Marisa Amunarrizek; Joxean Subizar mintzatu zen Malerrekako eta Bertizaranako Caritasen izenean; Aspaceren izenean Isabel Pardo eta Leire Satrustegi aritu ziren; Bidelaguneko Isidro Herguedas solastu zen; Elkarrizaneko Marian Biurrarenak ere hitz egin zuen eta Anfas elkartearen izenean Beatriz Oiartzabal aritu zen hizketan. Horiekin batera, Dizdira-Anasaps da programan parte hartzen duen zortzigarren erakundea. Euren ekimena izan da, eta euren arteko harreman solidarioa sustatu bidenabar, inguruan jende jakin

Marian BIURRARENA *Elkarrizan elkarteko koordinatzailea*



Nolatan sortu zen proiektua martxan jartzeko ideia?

Ekainean hasi ginen elkartzeko, indarrak batzeko helburuarekin. Beti behar da jendea, daudenak gustura daude baina jendea animatu behar da. Elkarren artean zerbitzu hobea eman nahi dugu, eta boluntario aunitz baldin badago lana banatu daiteke. **Zein da erakundeek amankomunean duzuen hutsunea?**

Boluntarioak falta direla. Gure kasuan, Elkarrizan erakundeetan, nahiko hornituak gaude baina Aspacen eta Dizdira-Anasapsen, adibidez, jendea behar dute proiektu berriak garatzeko.

Maila sozialean dagoen hutsunea haundia da?

Jendearen arteko harremanak falta dira, eta gizartearen gauza aunitz dago egiteko. Beharra dutenei laguntzeaz atzendu egiten gara.

Politikarien inplikazioa ere eskasa dela nabarmendu zenuten agerraldian...

Elkarrizanean kasua ez da hori, Berako Udalak eskatu dugun laguntza beti eman digulako, eta horri esker segitzen dugu aitzinera. Bertze herri edo eskualdetan ez da hori gertatzen.

Elkarrizanez ateraldiak egiten ditu adinekoekin...

Bai, urtean bi irteera egiten ditugu Berako San Jose Za-

har Etxekoekin, Beran barrena. Lurraren Eguna edo Ekobera ikustera ateratzen ditugu. Xaharrak eurek ere gustura gelditzen dira paseora ateratzean. Uda partean baliteke bertze irteeraren bat ere egitea, Lizuniaga aldera, furgonetarekin.

Jendea animatu dadin zer erranen zenuke?

Lauzpabortz urte daramatzat boluntario lanetan, eta horrek bete egiten du. Norberak erabakiko du zenbat denbora eskaini baina lan betegarria da. Egia da zure denbora erabiltzen duzula, baina zinez diot bete egiten duela horrek. Ea jendea animatzen den! Garrantzitsuena ez da bakoitzak zenbat ordu edo zenbat egun eskaintzen dituen, kontua gogoia izan eta laguntzea da.

«Garrantzitsuena ez da zenbat denbora eskaintzen den, kontua laguntzea da»

batek dituen beharrak asetzera datoz. Izan haurrak, izan xaharrak, izan gaixoak edo izan etorkinak. Horrekin batera, boluntarioen sentsibilizazioa sustatu nahi dute, eta hala, deialdi berezia egin zieten gazteei, «bizitzeko bertzetako moduak deskubritu ditzaketelako, zaharrei, eriei, haur ezinduei, atzeritarrei... lagunduz». Halaxe aipatu zuen Isidro Herguedasek.

Boluntarioak biltzeko asmoarekin, martxoaren 8a bitarte garatuko den kanpainan, 7.000 eskuorri banatuko dira Baztan, Bortzirriak, Maleurreka, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdiko etxeetan, «Bizitzak badiu oraindik ezagutzen ez dituzun bideak. Etorri gurekin», lelopean.

Laguntza emateko aukera bakoitzaren beharren arabera antolatu nahi dute, eta horregatik, bultzatzaileek argi utzi zuten norbere esku dagoela zenbat denbora eskaini. Hortik abiatuta, gizarte erakundeok antolatuko ziratekeen hori koordinatzeaz. Eman daitekeen laguntza mota ere zabala da: taxirik ordaintzeko aukerarik ez izan eta herritik kanpo medikuarengana joan behar duen adinekotik hasi, eta arazo psikikoak dituzten haur eta euren senideei laguntzerainokoa. Herguedasek gaineratu zuenez, «gizarte gaietan inplikazio politikoa hagitz eskasa dago, baina beharrak hor daude. Hortaz da garrantzitsua guztion laguntza».

GIZARTE ERAKUNDEAK BANAN BANA

Elkarte bakoitzak bere beharrak ditu, baina guztiek behar dituzte boluntarioak

Zortzi erakunde horiek esparru diforentetan egiten dute lan: haurrekin, zaharrekin, etorkinekin... Baina boluntarioen eskua guztietan da beharrezkoa.

XAULI. Ezinduei laguntzeko helburuarekin sortu zen Baztanen, 1998an. Ezintasuna dutenei aisialdirako aukerak eskaintzen dizkiete larunbat arratsaldetan Elizondon. Eskulanak, zine-ateraldiak... egiten dituzte. 12-15 ezindu biltzen dira eta hiru baino ez daude laguntzeko.

SAHARAREN ALDEKO ELKARTASUN TALDEA. Udan Saharako errefuxiatu kanpalekuetatik etorritako haurrak etxean hartzeko familiak behar dituzte.

ASPACE. Beran duen egoitzan aritzen da lanean ASPACE, batez ere, haur eta gazte ezinduekin. Bertzeak bertze, psikomotrizitate, musikoterapia eta horrelako programak lantzen dituzte. Lau boluntario daude eta hartuko duten jendea biltzen den boluntarioen araberakoa izanen dela kontuan hartuz, lagun gehiagoren beharra dute.

BIDELAGUN. Beharrak anitzak izan arren, adinekoak herritik kanpo medi-

kuarengana eramateko gidari autodunak behar dituzte elkartean. Izan ere, adineko asko gastuei aitzin egin ezinean daude, eta ez dute taxirik ordaintzeko modurik. Horrez gain, etorkinei gaztelaniatzeko klaseak emateko eta ospitaleratuak dauden adinekoak bisitatzeko boluntarioak behar dira. 60 boluntario daude egun Bidelagunen.

ELKARRIZAN. Elkarte hau Beran sortu zen eta urte osoan zaharrekin ateraldi eta paseoak egiteko boluntarioak behar ditu.

CARITAS. Doneztebeko pisu tuteluetan bizi diren adinekoekin laguntzen die batez ere, eta horretarako laguntzaileak behar ditu.

ANFAS. Elkarte berria da eskualdean, ezintasuna duten haurrekin ari dena. Bere kasuan, udako kanpaldi edo udaleku irekietan parte hartzeko jendea behar du. Hiru astekoak izanen dira, uztailan eta abuztuan.

DIZDIRA-ANASAPS. Arazo psikikoak dituzten senitartekoekin egiten dute lan Dizdira-Anasaps erakundeetan. Hainbat ekimen garatzen dituzte eta horretarako laguntzaileak behar dituzte.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leiza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Baztango mutildantzak

Azkeneko hilabeteetan zenbait pertsona bildu gara mutildantzaren inguruan solas egin eta hausnartzeko. Motibazio bakarra izan dugu eta dugu: mutildantza maite dugu. Horren inguruan zenbait ideia landu ditugu.

- Mutildantza Baztango ikur garrantzitsuenetakoa bat da eta, behar bada, gizonak bakarrik dantzatzeko mantentzeagatik badu gaur egun duen ospea. Berrezitasun hori dela eta, ezagutu dugun modu horretan segitzea gustatuko litzaiguke, gaur egun dantzatzeko duten gizon aunitz daudelarik.

- Ez dugu aurtengo udan Baztango zenbait plazatan suertatutako egoera ezatseginak berriz ere gertatzea nahi. Ez gaude Baztango dantza honen inguruan zirku mediatiko bat muntatzeko prest. Hori nahi duen norbait ere baldin badago, ez gaitu bere parean aurkituko ez baikara joko horretan sartuko. Ez dugu inolako istilurik nahi.

- Batzuen ustez hemen eskubideen inguruko gatazka bat dago. Horrela bada, egon daitezkeen iritzi guztiak errespetagarriak dira, bai dantzarienak, bai txistularienak, baita ikusleena ere.

- Gainerakoen ikuspuntuak konpartitu ez,

baina errespetatzen ditugularik, guk gurea adierazi nahi dugu eta egoera ikusten dugun moduan defendatu ere bai.

- Akitzeko, erran, gure ustez errexena dela ohiturak aldatzea. Gu, berriz, zailagoa bada ere, ezagutu ditugun eta ezagutu ditugun moduan mantentzen saiatuko gara.

Baztango mutildantzari batzuk

Herri txikiak bizirik!

Baztango beharrak nonbait Elizondoko herriak dituenekin bakarrik neurtzen dira.

Orain dela egun batzuk Diario de Noticias egunkarian berri bat irakurri ondoren aho bete hortz gelditu nintzen. Labur bilduz, berri honen arabera, Baztanen (15 herri izanda) ez omen dago babes ofizialeko etxebizitzaren beharrik, Elizondokoak ez baitira saltzen.

Baztango Udalaren helburua herri txikiak desagertzera baldin bada neurri «egokia» iduritzen zait, baina ez otezen aberasgarriagoa izan herri guztiei eskubide berak luzatzea? Zergak beraiek (Elizondokoak) bezala ordaintzera behartuta gaude, ez pentsa deskontuak

ditugula. Gainera zergatik ote gaude behartuta beste herri batera joatera gure familia osatzera? «Bigarren mailako» herri hauen egoera oso larria da, horrela jarraituz, desagertuko dira. Mesedez, herri txikiak bizirik, eta herri txiki giroa mantendu dezagun!

Gauzak horrela, Udalari lasai egoteko erranen nioke, nik nire herri bizitzeko apostua egin dut, herritxo honek 500 biztanle baino gutxiago dituen ez dute babes ofizialeko etxebizitzarik egiteko obligaziorik, horregatik nire gurasoen etxean jarraituko dut azken 30 urte hauetan bezala, eta beharrik, beraiek nitaz arduratzen direla, etxe berri bat egiteko behar den diru kopurua sekulan lortuko ez dudalakoz.

Udala entzun: Baztango Bailara 15 herrik osatzen dugu!!!

Baztango "bigarren mailako" herri bateko gaztea

Funveran ELAren gehiegikeria!

Ilbeltzaren 31an sinatu zen Funveran (Fundaciones de Bera) Hitzarmen kolektiboaren aurrekordia. Enpresa Batzordean ELA eta LAB sindikatuak badaude ere, soilik ELA sinatu

du. Eta LABetik kritikatzeko dugu nola egin diren gauzak lantegi honetan, batez ere Enpresa Batzordea gehiengo osatzen duen ELAren aldetik.

Urte hasieran, Zuzendaritzak informatu zuen lan zama dezente sartu zela lantegian, bi urtetarako aurreikuspenekin, eta txandak berretu behar zirela (aldatxandan langile gehiago sartuz), langile berriak kontratatuz. Bertze aldetik, une horretan hitzarmen berria negoziatzeko atarian zen.

Ez da ohikoa izaten hitzarmena negoziatzeko garaian, lan eskaera berriak sartu direla lantegian, horren informazioa ematea. Baina Funveran, aldi honetan, horrela izan da. Informazio horren arabera, negoziatzeko egoera hobe batean gelditzen da Enpresa Batzordea, eta ELAren jokaera itxiagatik ez da aprobetxatu aipaturiko egoera.

Bi puntu dira, LABen ikuspegitik, kolokan edo gaizki itxita gelditu direnak: Aldatxandaren akordioa alde batetik, eta kontratu tinkoak egiteko artikulua hitzarmenetik kentzea bertzea.

Zuzendaritzak planteatu zuenean lantegiko langile guztiak sartzea alda-txanda erregimenean, LABen aldetik plan bat aurkeztu zen Enpresa Batzordean, non sortutako beharrak, borondatezko langileekin beteko zen, eta horrekin ez balitz aski, kon-

• 11 GALDERA LABUR •

Baztan Futbol Taldetik Iruñeko Pamplona taldera. Zer erran nahi du horrek zuretzako?

Ba aprobetxatu beharreko oportunitate bat, arras polita.

Zertan fijatu ote dira Pamplonan zu fitxatzeko?

Niri erran didatenez, altua naizelako eta buruz ongi moldatzen naizelako eta buruz ongi moldatzen den defentsa bat behar zutelako.

Zu Iruñera joanen zara, baina etxeko bertze ordezkaria Baztan Futbol Taldean, Julen anaia. Ez zituzten bere dohainak zureekin nahastuko, ez?

Ez, ez.

Zergatik futbola eta ez bertze kirolen bat?

Betidanik gustatu izan zait futbola. Lehenago pilotan ere aritzen nintzen baina futbola gehiago gustatu eta...

Futbolari bezala ametsen bat?

Osasunan aritzea!

Kirola muga da besta egiterako orduan?

Baztanen ez didate mugarik paratu eta Pamplona taldean ere ez. Besta egiten ahal da.

Arizkungo Sanjuanak edo Gizakunde duzu nahiago?

Inauteriak eta bestak biek arront politak dira. Aukeratzekotan, inauteriak igual.

Eraikuntzan ere lanean aritua zara. Igeltseroarekin edo baloiarekin moldatzen zara hobeki?

Baloiarekin, baloiarekin!

Futbolaz gain, baduzu bertze afiziorik?


Bai, musika gustatzen zait. Denetarik musika, baina Ska musika dut gustukoena.

Ikasketetan zer moduz?

Ikasten ari naiz baina... Institutura joaten naiz baina nahiko *jodido* dago kontua. Ikasten segitu nahi dut baina ikasten serio hasi beharko dut noiz-bait...

Zer du Arizkunek Baztango bertze herriek ez dutena?

Denetarik! Baztango herririk politena dela!



Asier LIZARTZA
Arizkungo futbolaria

tratazio berriarekin. ELA-ko ordezkariari ongi iruditu zaien planteamendua, baina LABetik egin zelako ez zuten bideratu. Tamalgarria da interes sindikalak langileen gainetik jartzea!!

Bertze aldetik, orain arteko hitzarmenean, behin-behineko langileak %15 baino guttiago izan behar direla bilduta zegoen. Eta aurrekordioan, ELAk onartu du puntu hori desagertzea. Artikulu horrek hutsuneak baldin bazituen ere, plantilan behin-betiko kontratuak ahalik eta gehiena izatearren lan egiteko aukera ematen zuen. Baina orain zuzendaritzak jarriko du berari interesatzen zaion muga, Enpresa Batzordearen kalterako.

Hauek izan dira nagusiki, LABek Lan Hitzarmena ez sinatzeko izan dituen arrazoiak.

Lantegi honetan denbora bat daramagu ELA-

ren gehiegikeriak eta harrokeriak pairatzen. Gauza bat da Enpresa Batzordean gehiengo izatea, eta bertzea da gainerako sindikatuei, kasu honetan LABeri, errespetutik ez izatea. Errespetuz eta elkar ulermenez kudeatzen badira Komite kideen arteko harremanak. Azken finean Funverako langile guztiak jasaten dituzte gehiegikeri eta harrokeri hauen ondorioak, galduz, lortzeko hainbertze kostadiren eskubideak, eta enpresa da irabazten duen bakarra ELAk LABen aurka burutzen ari den etengabeko eraso honekin. Gaizki pentsatuko bage-nu errango genuke hain xuxen hori dela batzuen helburu nagusia, hau da, LAB borrokatuz enpresa kontent edukitzea; gaizki pentsatu behar ahal du-gu?

Funverako LAB

BERA Zere inguruak klase guzietako insaktuz (samorra, zintorra, arriarria, kalkara...) eta errotoi sagutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamendua

GOEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 517 • Zelaia, 42 A • BERA

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA

Tel: 948 627 814
Berrito Plaza, 10 - LESAKA

Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 • 31780 Bera • Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pac. 6 - Itzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERROTAZAR
harategia

Berrito
produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088



martxoak 6, osteguna
ETXALARKo Kultur Etxean

20:00 Bideo bilduma: **EMAKUMEON HISTORIA IRUDIETAN**
20:30 Filma: **MI VIDA SIN MÍ** (Isabel Coixet)

martxoak 7, ostirala • **LESAKA**ko erabilera anitzeko gelan
(osasun zentroaren sarreran) **Antoiu** kalea 27-2

20:00 Bideo bilduma: **EMAKUMEON HISTORIA IRUDIETAN**
20:30 Filma: **VOLVER** (Pedro Almodóvar)

martxoak 7, ostirala
BERAko Kultur Etxean

20:30 Filma: **VOLVER** (Pedro Almodovar)

martxoak 12, asteazkena
IGANTZIKO Zahar Etxean

20:00 Bideo bilduma: **EMAKUMEON HISTORIA IRUDIETAN**
20:30 Filma: **LA BODA DE MURIEL** (P. J. Hogan)

martxoak 13, osteguna
ARANTZAko Zahar Txokoa

20:00 Bideo bilduma:
EMAKUMEON HISTORIA IRUDIETAN
20:30 Filma: **FUEGO** (Deepa Mehta)

BORTZIRIETAKO
BERDINTASUN
ARLOA

martxoak **8**
de marzo


EMAKUMEON NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER

ZINE-FORUM:
EMAKUMEON HISTORIA
ETA ISTORIOAK

emakumeok badugu zer ikusirik

ezk ontza

GEHIGARRIA 2008



ZUBIONDO Jatetxea

BANKETEAK ETA KARTA

- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi berze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Koktelarako leku aproposa

eskatu gure ezkontzetako menua



Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia



Anitzen ustez, bizitzan har daitekeen erabakirik garrantzitsu eta zailena da ezkontzea, baina kasurik gehienetan, egun gogoangarria. Ezkontzeko erabakia hartzen denetik, ordu luzeko dedikazioa eta dirutza handia beharko duen ekitaldia prestatzen hasi beharko dute ezkongaiak. Xehetasunik ttikiena ere zaindu behar izaten da: eratzunak, ezkontza-aretoa, jatetxea, jantziak, gonbitak... Azken aldi honetan, urtetan mantendu diren jorakerak aldatzen ari dira.

Zeremonia goizean edo arratsalde erdian baldin bada, traje beltz edo grisa eta lebita. Eta ezkontza gauz baldin bada *fraka*. Horiexek senargaia jantzeko aukera batzuk.



SENARGAIK Gorbata edo pajarita aukeran

ezk

Traje klasikoa, *chaqué* edo *frak* dotorea dira senargaiarentzako aukera nagusiak, eta aurtengo erabilienak ere horiexek izanen dira. Baina nazioarteko diseinatzaileek tximeleta-begizta (pajarita) dararmaten gizongaiak jarri dituzte pasarela gainean. Tximeleta-begiztak, estuak, estanpatuak edo formalak izan daitezke. Eta trajea eta gorbataren seriotasuna gustukoa ez dutenentzako, itxura bohemioa duen senargaia proposatu dute. Gizongai hauek lepo-zapia eramanen dute eta jantzien arteko konbinazioa bilatuko da. Kasu anitzetan galtza eta jaka kolore ezberdinetakoak dira.

Hala ere, jostunen proposamenen artean ausartena, distira, *strass* eta lentejuelak sartzearena da, atorra, gorbata eta jaketan.

Zeremonia goizean edo arratsalde erdian baldin bada, traje beltz edo grisa izan ohi da, nahi bada lebitarekin. Galtzaren mozketa klasikoa izanen da eta marra bertikalak. Konjuntoa txalekoa, atorra eta gorbatarekin osatuko da. *Chaqué* duden artean, festa eta originaltasuna bilatzen dutenek, klasizismo horrekin kontrastea egiten duten xehetasun batzuk aukera ditzakete; lihozko edo zetazko kolore biziko txalekoak, estanpatuak...

Ezkontza etiketakoa ez bada, traje tradizionala erabiliko da. Txaketa zuzena, estua, gurutzatua eta bi, hiru edo lau botoikoa. Aukerarik garrantzitsuenetakoa kolorearena da. Nahiz eta beltza, urdina edo grisa bezalako kolore klasikoak nagusitu, udako ezkontzetan kolore argiak ikusten dira: txuria, beisa, kamel kolorea... Gizongai ausartenek berdea, arrosa, urrea eta zilarra ere jauntziko dute. Dena den, aurtengo pasarelatan urdina da denboraldiko izarra, egonkortasuna, leialtasuna eta konfidantzaren erakusle.



ANDREGAIEN SOINEKOAK

Kolore zuritik hasi eta beltzeraino

ontza

Andregai bat, soineko bat. Klasikoa, abangoardista, retro, printzesa, ausarta... Gaur egungo andregaiak duela urte batzuk baino aukera zabalagoa dute. Nahiz eta kolore zuria, mantelina edo beloa eta dandar luzea diren gehienetan hautatzen dituztenak, diseinatzaileek gustu guztiatarako soinekoak sortzen dituzte. Garrantzitsuena, andregaiaren estilo pertsonala joera guztien gainetik egotea da.

Bilatzen hasi baino lehen, soineko tradizionala edo modernoaren artean aukeratu behar da. Farfailak, bordatuak, mantelina edo beloak, inperio mozketak eta uhalik gabeko eskoteak dira jantzi klasikoaren ezaugarri nagusiak. Baina badira joera ausartak ere. Soineko modernoek bolumen handia hartzen dute, *vintage* modan inspiratzen dira, eta harribitxi, gerriko zabal, lore eta kolore ezberdinetako lazoekin *chic* ukitua dute. 2008ko joeren artean zilarra, pastel tonuak, elektrikoak, estanpatuak eta kolore beltza ikusten dira.

Aurten zilarra, pastel tonuak, elektrikoak, estanpatuak eta kolore beltza dira nagusi.

Estiloaz harat, andregaiari soinekoak ongi gelditzea da garrantzitsuena. Adibidez, lepoa luzea dutenei eskote zabalek ongi emanen diete; hain argalak ez diren entzako soineko armatuak egokiagoak dira; argalenzako bolumen handiko gonak dira aproposak; flamenko inspirazioko soinekoak gerri markatuak dituztenentzako egokiagoak dira; bular handia dutenentzako piko edo eskote karratuak aukera ona dira.



JUAN J. PIKABEA
konfiguraziotako trajeak

DIESEL

Lois

- Neuerri haundiak
- Galtzak 70 arte
- Atorrak 54 arte
- Zertanak

Amerizia z/g.
DONEZTEBE
948 451 670

Amaya
LURIAINDEGIA
APAINDEGIA

- Manikura frantsesa
- Makillajea
- Solariuma
- Depilazioa
- Osogorriak
- Andregaientzako aurpegi eta gorputz tratamendu bereziak (kabiana, urra, eta.)

Prestatu zure aurpegiko azala ezkontza egunerako

Amerizia z/jg • **DONEZTEBE**
Tfnor: 948 450 163

ainhoa
estilista

RUTH ILEAPAINDEGIAN
betiko tokian aurkituko gaituzue!!

Bitaria 59 • LESAKA • 948 637 436





ORRAZKERAK ETA MAKILLAJEA

*Aurtengo modaren arabera,
ile-bildua eta kolore
gehiegirik gabe*

Aurreko denboraldian bolumen handiak eta tupeak nagusitu baziren, 2008an, nahiz eta motots klasikoaren bertsio ezberdinak eta adats edo melena solte naturalak ere ikusiko diren, orrazkera bildu tradizionalak nabarmenduko dira.

Aunitzetan motots tradizionala da andregaiari hobekien gelditzen zaiona, ilea eusteaz gain aurpegia agerian uzten baitu. Mantelina edo beloaz gain, apain-orraziek, ile-orraztek edo zintek ukitu berezia eman diezaiokete orrazkerari. Norbere ilearekin egin-dako apaingarriak ere erabil daitezke, adibidez, txirikorda bat diadema moduan jarrita.

Makillajeari dagokionez, estilistak kolore gehiegikeria saihesten saiatzen dira. Azala berdindu eta inperfekzio txikiak estaltzeko makillaje-oinarri on bat erabiltzea hagitz garrantzitsua da. Ezpaineak politak gelditu behar dute eta sentsualtasun ukitua eduki.

Estilistak kolore-gehiegikeria saihesten saiatzen dira, beti ere, ilearen eta azalaren kolorearen arabera



Aurtengo ezkontzetan
orrazkera bildu
tradizionalak
nabarmenduko dira

Mutilei dagokionez, argi dago gero eta gehiago zaintzen dutela itxura eta horregatik egun berezi honetarako estetika zentrotik pasatzen dira. Aurpegia eta eskuak direnez atentzio gehien ematen dutenak, egun honetarako aurpegi-tratamenduak eta manikura egitea da gehien eskatzen dena. Manikura bezperan egin daiteke baina aurpegiko tratamendua bertz egun lehenago egitea gomendatzen da, gorridurak ekiditeko. Oinarrizko zainketa hau gorputzeko masaje erlaxagarria eta pedikurarekin osatu daiteke.

bortzirudi

EZKON-GONBITAK
DOTOREAK, JOERA BERRIAK,
HUMORETSUAK, e.a.

DESPEDIDETARAKO
KAMISETAK · ARGAZKI MUNTAIK
e.a.

Ezkontzak

Zaldúa fotografos

EZ



LOREAK

Loreak nolakoak, ezkontza ere halakoa

Lore bakoitzak esanahi bat daukela-eta, nortasunaren adierazle dela erran ohi da. Hona hemen adibide ezberdinak:

Kala zuria: Forma estilizatu eta purua daukanez, emakumearen dotoreziaren sinboloa da eta daukan kolorearengatik soineko gehienekin ongi doa.

Lislanthus: Arrosa eta gardeniekin nahasita, andregaiari sofistikazio handia ematen dio. Gainera, kolore gama aberatsekoa denez, erramu eta apaingarri gehienekin ongi doa.

Arrosak: Bikote erromantikoetan ohikoak dira eta gorri klasikoaz gain, lila eta arrosa kolorekoek andregaiaren zorientasuna eta ilusioa adierazten dute.

Beltzaranez horia eta fukia koloreko loreak eraman ditzakete; ile horientzat, berriz, zuria eta pastel koloreak dira egokienak.



telefono gida berritzen
hasiak gara!
publizitatea sartu nahi baduzu,
948 63 54 58ra

maria ileapaindegia

Ezkontzetarako
Manikura • Makilajesa • Orrazkerak
DONEZTEBE • 948 450 922

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala

Ospakizun berezietako jantokia
Menua eta karta
Sasoian sasoiko platerak

Zalain z/g • Bera-Nafarroa
Tfnoa: 948 63 09 67

Jaimerena
ileapaindegia

GIZONEZKOAK
EMAKUMEZKOAK

ESTETIKA SOLARIUM-A

Tfnoa: 948 561 275
Santago, 19 - behea
ELIZONDO

GONBIDATUENTZAKO OPARIAK

Eskulan ttikiak dira estimutuenak



Ez da gehiegi gastatu beharrik, originala izatea da hoberena. Ideala ezkongaiak prestatutako zerbait oparitzea litzateke. Trebetasun berezirik baduzue? Pastel, bonboi, pasta edo likore gozorik prestatzen badakizue? Eskuz egindako bitxiren bat? Olerki edo ipuin motzak idazterik bai?

Hobekien egiten dakizuen hori zer den pentsatu eta prestatu oparia. Zalantzarik gabe, nahiz eta perfektua ez izan, gehiago preziatuko da.

Ezkontzaren estiloaren eta kolorearen arabera da gonbidatuen oparia.

Zuen burua ez baduzue horrelako zerbait egiteko gai ikusten edo denborik ez baduzue, ez kezkatu. Gaur egun merkatuak aukera polit eta dibertigarriak eskaintzen ditu. Oparitxoak aukeratzeko orduan, ezkontzaren estiloa eta kolorea kontutan hartu behar dira. Aurtengo koloreak arrosa, zuria, granatea, urrea eta zilarra dira.

Oparitxoak jatetxeko mahaiak apaintzeko ere erabili ohi dira. Mahai gaineen utzita ezkontzako giroa pertsonalizatu dezakezu. Adibidez, plater gainetan barnean bonboiak dituen miniatuazko txanpanerak jarritz.

Eta originala izan nahi baduzu, gonbidatuei espartinak oparitu! Normalean dantzan aritzea izaten da gonbidatuek gehien espero duten unea baina askotan ordurako hankak leher eginak dituzte. Dotoreziari uko egin gabe, arrakasta ziurtatuko duzu.



TELEFLORA

Azalea

Gonbidatuendako oparituak
Andregaiendako koresortak
Eliza edo epaitegiko apainagarriak...

Alzate 26 - HERA - 948 63 11 21



ESTHER

FLORISTERIA • GARDEN CENTRE

Elizak eta epaitegiak
apaintzen dira
Kotxea, andregaien
erramuak,
lilerako, prendidoak...

NABARTE • Inm-bruko errep.
948 59 22 00 • 948 58 09 71



Telefono gida berritzen hasiak gara!

bazter, bazterrean, bazterrean, bazterrean
malarmak eta ordaineko telefono gutak!

zure publizitatea
sartu nahi baduzu,
deitu **948 63 54 58**ra



ADATSA

ileapaindegia

Braulio Iriarte luzapena, 58
Tfnor: 948 452 467
ELIZONDO



Burdain

bitxitogia erlojutogia

Hus itazu ezkeritza-erazturen joera nabarmenena
eta aukera bizi hau orotzetan ahaztegia
bihurtuko duen pieza hori

Gotzai Benildetxea, 4 • ELIZONDO • T-F: 948 580 445




euskal estilo

Jostunen artean bi joera daude: jatorrizko janzkera zehatz-mehatz kopiatzen dutenak eta hain zorrotzak ez direnak eta aldaketak egitea onartzen dutenak



Jendeak 'baserritarjantzia' edo 'jantzi tradizionala' entzuterakoan, jantzi bakarra heldu zaio gogora edo aukera gutxi dagoela pentsatzen du. Baina egia erran, jantziak ezberdinak dira garai eta herri bakoitzean, mila daude. Jostunen artean bi joera ezberdindu daitezke: jatorrizko janzkera originala zehatz-mehatz kopiatzen dutenak eta hain zorrotzak ez direnak eta aldaketak egitea onartzen dituztenak.

Azken hauen arabera, janzkera tradizionala gure kulturaren zati da eta ezin da sinplifikatu herrialde bakoitzarentzat uniformea bilatuz. Orain eta lehen ere, funtzioaren arabera, merkatuak kalitate, prezio eta diseinu ezberdinetako jantziak eskatzen zituen: besta herrikoietarako, ezkontzetarako, dantzarietzako...

Gaur egun, ezkongaiak ez ezik, aitamabitiak edota gonbidatu guztiak ere joan daitezke euskal estiloko jantzi tradizionalen ospakizunera. Behin hori erabakita, dena espezializatuetara jo behar da aukera eta aurrekontu ezberdinak ikusteko.

Gero eta bikote gehiagok erabakitzen dute ezkontza antzinako moduan ospatzea, eta horretarako bilatzen duten arropa ere berezia izaten da. Ez dute nahi ez soineko zuririk ezta gizonezkoen betiko trajerik ere. Izan ere, euskal tradizioa duen arropen begirada bat emateko joera gero eta gehiago ari da zabaltzen.


iloko arropak

Gipuzkoan normalean, dandar ttikia zuten gona luzea erabiltzen zuten andregaiak. Egunerokoan mantalak erabiltzen bazituzten ere, ezkontza eguneko soinekoan ez zeramaten mantalik. Jantzia beltza izaten zen. Eta noski, buruko zapia atzendu gabe. Izan ere, ezkongabeak zapirik gabe ibiltzen ziren edo, eramatekotan, estanpatua. Ezkondu ondotik zapi zuria erabiltzen zuten. Andregai nahiz gizongaiak ez dute abarkarik jantziko,

“euskaldun on bat ez baita inoiz oinetako kaxkarrekin jendaurrean agertuko”.

Nafarroan andregaiak pololoa, gonazpikoa, gona, blusa, korpiñoa, zapia eta jipoia eramaten zuten. Ohiturak zioen bezala, gizongaiak andregaiari gonazpikoa edo gona-gorria oparitu behar zion. Aunitzetan, arreoan eramaten zen gonazpikoa emakume ezkonduen jantzia zelako.

Gipuzkoako usarioan, ezkontza-soinekoak ez zeraman mantalik; Nafarroan gonazpikoa edo gona-gorria gizongaiak oparitzen zuten.



Endanea
Ezkontzarako Behar Ditezuen Lore Apaingarri Guztiak

Zainz eta Ikusi Gure Eskaintza

Adreentzako Oinak 900ezko 200ezko
Astelehenetik igandera 9:00ezko / 18:30ezko

Arizubio Auzoa 40, N-1 (Iruingo Ospitaleko Bidegurutzean)
Telefonoa: 943 641 710 - www.endanea.com

BEOLA
Posada - Palacio

Zure ezkontza egunean, otordurik berexiena.

Barrika Nagusia, 1 • ALAMANDUZ • Telefonoa: 948 385 002

eta...
ezkontzen bagara?

Zuen ametsetako ezkontza bidaia dugu.
Eta gainera gonbidapenak dohainik lortu ditzazkezue!

Viajes EstivalTour

Ilekueta 1 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 04 51 / Fax: 948 63 06 41
bera@estivaltour.com / www.estivaltour.com





Bidaiari maiteminduak

Bidaiez, bizitzaz, bidaiari zoragarrietan izandako esperientziez maiteminduak. Proposamen pizgarrienak eta promozio tentatzaleagoak aurki ditzakezu **Bidaiari Maiteminduak 2008** katalogo berria. Barcelora etor zaitez eta eska ezazu zurea.



Aholku hobereana zure Barcelo agentzian
LESAKA: Plaza Zaharra, 4 | 948 63 81 79

TEXARTU EHINGINTZA DISEINUA

San Francisco 8-10• IRUÑA
Tfnoa: 948 22 64 95
www.texartu.com
texartu@texartu.com

Ezkontza, euskal besta eta ospakizun folklorikoetarako jantzi tradizionalak

Guk geuk brodatu eta jositako jantziak

Jantzi eta osagarri aukera zabalenarentzako aurrekontuak



 **MERCHE**
MODA HOMBRE

Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943612626

- *Giovani Valdi*
- *Sandro Sellini*
- *Caramelo Gala*



BERA

Udal arkitektoa kontratatzea erabaki du Udalak

EA, EAJ eta Aralarren aldeko botoekin eta EAeren kontrakoekin onartu zen mozioa

Amaia eta Ainhoa

Udal arkitektoa kontratatuko du Herriko Etxeak. Horrela erabaki zuen udalbatzarrak urtarrilaren 31ko bilkuran EA, EAJ eta Aralarren aldeko zazpi boto eta kontrako lau botorekin—ANVrenak—. 2008ko aurrekontuetan hirigintza alorrerako aholkularia kontratzea aurreikusia da, «*asistentzia kontraturako 60.000 euroko gastuarekin*». EA, EAJ eta Aralarrek, ordea, aholkulariaren proposamena baztertu eta udal arkitektoa, udal-lan-gile modura, kontratatzearen beharra aipatuz bertze mozioa aurkeztu zuten aipatutako ple-noan. Horrekin udal kudeaketa hobetuko pentsatzen dute oposizioko hiru taldeak.

Lesakako Udalarekin batera hartu nahi da langilea, horrek gastua ere murriztuko lukeelako. Ordutegia bi Udalen artean finkatuko litzateke eta A mailako soldata eta %35eko osagarria izanen luke. Udal bakoitzak zehazten dizkion lanak eginen litzu-

ke. Alkateak, bere aldetik, hirigintza lanak ez gibeleratzeko urtebetarako laguntza-kontratua egitea proposatu zuen.

Idazkariak, berriz, hirigintza zerbitzurako laguntza-kontratua martxan dagoela adierazi zuen, nahiz eta gastua ez konprometitu izan. Edonola ere, EA, EAJ eta Aralarrek aurkeztutako mozioa onartu zen, eta udal arkitektoa kontratatzea erabaki da.

Izena ezin 'Bera' bakarrik izan

Herriaren izen ofizialak *Bera/Vera de Bidasoa* izaten segituko du eta ez *Bera* bakarrik—Udalak hala eskatua zuen—. Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamentuak ukatu egin du izen aldaketa, legez kontrakoa delakoan.

Udalak urtarrilaren 31n bidali zion Gobernuari *Bera* izen ofizial bakartzat hartzeko administrazio eskaera. Espediente hartan zeuden Udalak hartutako akordioa, informazio publikorako tramitea, Nafarroako Boletin Ofiziale-



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Ibardingo Plan Estrategikoari laguntza

Ibardingo Merkataritza eta Zerbitzuen Elkarteak 1,1 milioi euroko inbertsioa aurreikusi du. Eskaintza komertziala turismoa, aisia eta ingurumen jarduerekin zabaltzeko osatzea da helburua. Nafarroako Toki Administrazio kontseilaria den Amelia Salanueva otsailaren 12an Ibardinen izan zen eta dirudienez, Gobernuak Ibardingo Plan Estrategikoak aurrera egiteko laguntza emanen du. Plan honek Ibardingo zerbitzuak eta azpiegiturak hobetu eta zabaltzeko neurriak hartzen ditu kontuan. Komertzianteei bertan dauden ur arazoak eta saneamendu sarean egiten ari diren lanak azaldu zizkieten kontseilariari, baita urak biltzeko obrak egin eta arazketa eraginkor baten beharra ere. Merkataritza guneak Plan Estrategikoaren barnean dauden azpiegitura batzuk martxan ditu dagoeneko, adibidez, diru-iturri den gasolindegia. Planak, gainera, azpiegituren egoitza eta hobekuntza eta ingurumen natural eta komertzialaren antolamendua hartzen ditu barne.

an egindako argitalpena eta guziaren ondotik, udalbatzarrean adostutakoa. Baina Gobernuak dienez, udalerrien euskarazko izendapenaren erabilera 18/1986 Foru Legeari lotua dago. Horren arabera, Nafarroako eskualde zonaldeko toponimoen izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, gaztelerako bertze bat ez dagoen bitartean. Kasu horretan, biak erabili beharko lirateke. Gobernuaren ustez, bi izendapen ezberdin ditu Berak, eta biak ofizialak izanik, ukatu egin du Udalaren eskaria.

Drogen inguruko ikastaroa

Otsailaren 28an, martxoaren 6an eta 13an, komunitatean drogen mendekotasunei aurrea hartzeko ikastaroa burutuko da. Droga eta drogen mendekotasunei buruz oinarriko formazioa eskainiko da, Herri Planaren prebentzio egitasmoak aztertzearekin batera. Edukiei dagokionez, mendekotasunak, droga motak, bilatzen diren eta bilatzen ez diren efektuak, arriskuak, tolerantzia, mendekotasuna, kontsumitzeko mo-

duak, kontsumitzaile motak, babes eta arrisku faktoreak... jorratuko dira. Drogen fenomeno Beran zertan den ere aztertuko da.

Bertso saioa larunbatean

Nafarroako Bertso Txapelketaren 3. finalurrekoa eginen da larunbatean Kultur Etxean. Alaitz Rekondo gaitzartzailearen galderei erantzunez, 18:00etatik aurrera, Jon Barberena, Migel Mari Elozege Luze, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Juan Mari Lopez eta Ander Fuentesek saioa eskainiko dute.

carrho
gustategi onlinea
27 de entzupara 25 bago 1348 63 08 99
34700 berri@uverte www.carrho.net

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Aldatu 1 - Tel: 948 631 082

Xirail
Mozio 1 BERA
Phone 948 631 488

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA

Joseba Iturbide eta Mikel San Sebastian Espainiaratu ditzakete egunotan

Donibane Lohizunen otsailaren 15ean atxilotu zituen Poliziak

Aitor AROTZENA

Mikel San Sebastian eta Joseba Iturbide le-sakarrak Donibane Lohizunen, Lapurdin atxilotu zituen otsailaren 15ean Frantziako Poliziak. Atxiloketa momentua hagitz bortitza izan zela aipatu zuten biek eta armarik ez zeukaten arren, lurrean jo zituztela. Mikeli hamar puntu eman behar izan zizkioten sudurrean eta Josebak zauriak ditu berlarrian. Polizia etxean tratua hobea izan zela ere aipatu zuten. Bi le-sakarrekin batera Jose Antonio Martinez Mur eta haren bikotekide Estibalitz Bengoetxea atxilotu zituzten.

Joseba Iturbide eta Mikel San Sebastian Espainiaren esku uzteko arriskuan daude, Frantziaren haren kontra egiteko arrazoirik ez dutelako. Izan ere, atxilotzeko unean ez zieten armarik edo haien kontra egiteko moduko deus topatu. Espainiak, baina, San Sebastianen eta Iturbideren kontrako bi euroagindu eskatu ditu, ETAko kide izatea leporatuta bata eta Barajasko aireportuaren kontra egindako atentatuarengatik, bertzea. Astearte honetan, Pabeko



UTZITAKO ARGAZKIA

Erika Lagoma, bertsolari txapelketako lehen finalista
Erika Lagoma herritarra da Nafarroako bertsolari txapelketako lehen finalista, Txantrean otsailaren 16an egindako finalaurrekoan nagusitu ondotik. Saio berean hirugarren izan zen Xabier Terreros eta puntuazioaren arabera, finalerako sailkatzeko aukerak badiu oraindik. Joan den larunbatean, Lekunberriko finalaurrekoan aritzekoak ziren Iñigo Olaetxea eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe*, eta larunbat honetan, martxoak 1, Beran ariko da Juan Mari Lopez, denak Elizondon martxoaren 15ean egingen den finalerako txartel bila.

auzitegiak erabaki behar zuen euroagindu hauek bete ala ez. Hau idazterakoan, Tolosako Muret-Seysses espetxean zeuden biak.

Polizia iturrien arabera, Mattin Sarasola eta Igor Portu atxilotu zituztenetik ihesean ari ziren San Sebastian eta Iturbide eta beraien etxeak miatu zituzten. Espainiako Poliziaren arabera, ETAko kideak dira lauak. Atxiloketen kontrako

manifestazioa egiten saiatu ziren otsailaren 20an herrian. 200 bat lagun abiatuta zeudenean Guardia Zibilarren bi patrol agertu ziren. Modu txarrean joan ziren, «*hau Espainia da!*» eta antzeko oihuak eginenez. Pankarta zeramatenak eta bertze lagun bat identifikatu zituzten, eta martxa egitea eragotzi. Atxilotuak egon diren bitartean, mobilizazioak egin dira egu-nero herrian.

Udal igerileku estalia larunbatean inauguratuko da

A.A.

Udal igerileku estaliak eta kiroldegia larunbatean, martxoaren 1ean, irekiko ditu ateak. 13:00etan egingen da jendaurreko inaugurazioa, baina aitzinetik, 11:30 aldera, erakunde, elkarte eta instituzioetako gonbidatuek ikusiko dute kiroldegia. 16:30etik aitzinera, jendeak normaltasunez erabili ahal izanen du kirol instalazioa. Gainera, hasiera batean eguerdian itxiko zela iragarri bazen ere, astegunez goizeko 9etatik 22:00etara zabalik izanen da segidan, larunbatetan 10etatik 14etara eta 17etatik 21etara eta igandetan 10etatik 14etara.

FLASH

Beti Gazteren batzarra otsailaren 29an

Ortziral honetan, otsailaren 29an, 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarreanean, egingen du Beti Gazte elkar-teak urteko batzarra. Iazko batzarraren akta eta, bidezkoa bada, onartu ondotik, 2007ko ekitaldiak eta kontuak aztertuko dira, gero 2008ko ekitaldiak eta aurrekontua begiratuko dira, kuotak eguneratu eta zuzendaritza batzordea berrituko da, eskari-galderen txandari bide emateko. Ondotik, lunch-a eskainiko da.

Solasaldia Arranon

Pobreziak emakumearen aurpegia du izenburupean, Miren Aranguren, Bilgune Femenistako kide solasaldia eskainiko du ortziral honetan, otsailaren 29an, 20:30ean Arranon. Arrano Elkarteak berak antolatu du ekitaldia, Udalaren laguntzaz.



ETXALAR

Sagardotegian egon dira herriko gazteak

Hauteskunde mahaian egonen diren herritarrak aukeratu dituzte

Joseba eta Nerea

Azken urteotako ohi-turari segituz, joan den larunbatean txotx egin zuten herriko gazteek. Autobusa antolatuta, Hernaniko Itxasburu sagardotegian egon ziren 50 lagun, giro ederrean afaldu eta ordu tikiak arte besta egiten.

Larraburuko Magra Txapelketa

Igande honetan, martxoak 2, jokatuko dituzte Larraburuko jubilatuek aurtengo magra txapelketako azken mus eta partxis partidak. 12 gizon parte hartzen ari dira musen, eta 16 emakume partxisean. Beti bezala, bazkari baten bueltan elkartuko dira parte hartzaile guztiak, sari bana-keta egin eta txapelketari akabilla emateko.

Hauteskunde mahaiko herritarrak

Martxoaren 9an estatu espainiarreko hauteskunde orokorrak izanen

dira eta hauek dira hauteskunde mahaian egoitea tokatu zaienak: presidente lanetan Pedro Irazoki, lehen bokala Argiñe-neko Anabel Goienetxe eta Olazarko Jabier Sanzberro. Hiru hauek ezin izanen balute, hauek dira ordezkariak: Axular-larko Arantxa Zubieta, Bekoetxeko Arantxa Bizente eta Elordiko Rufino Zubieta.

Irun eta Itsaso Elizagoien, organoaren eritmorra

Pello Apezetxea apezak proposatuta, duela bi urte eta erdi hasi ziren Beheko Etxeko bi ahizpak organoa jotzen. 15 urte ditu Irunek, eta 13 Itxasok eta, seguraski, inguruko organo jotzaile-rik gazteenak izanen dira. Joan den abendutik larunbat arratsetako mezetan aritzen dira elizako organoa jotzen, eta «instrumentu berezi eta polita dela» erran digute, «ikaragarri gustura jotzen dugu».



UTZITAKO ARGAZKIA

Edurne eta Lurdes, muslari onenak

Otsaila hasieran Beran egin zen Gure Txokoa Elkarteak antolatutako III. mus txapelketan Lurdes Galarregi eta Edurne Elizagoien izan ziren irabazleak. 56 bikoteren artean, eurek lortu zuten txapela eta 400 euroko diru-saria, Xalba eta Ganix Zubietari irabazi ondotik. Hirugarren postuan ere etxalartarrak gelditu ziren, Manu Telletxea eta Xabier Berrueta Koxme. Zubiondon bi lagunentzako afaria irabazi zuten. Jose Antonio Aginagalde Agi herritarrak ere laugarren postua lortu zuen Iñaki Legazkue beratarrarekin bikotea osatuz. Zalain jatetxean bi lagunentzako afaria eman zieten. Ezin ukatu Etxalarren muserako afizio ederra dagoenik.



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Irun eta Itsaso Elizagoien ahizpak elizako organoaren aitzinean.

udana salazones

LINE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADA
S.C.C. 02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatuá, erabiltzeko prest**

Alkaiaga Ind. - Baraña, 8 - 23 pabellón - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 550

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

Kontrolla onategia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordus eskatu

ONGORROGIZATIK INDARTZERI:
Diabetes - Azina - Zizareak - Larru azalako alergia - Beroa mina
Oinena izerdia - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERAKUNTZA:
Mioopia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi larruek kataraktak

GHARRRE ARAZOAK
Bixkartza - Artritis - Erreuma - Artrusia - Lanbolgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

ARANTZA

Maiatzaren 18an egingen da Arantzako laugarren mendi itzulia

Ekaitza Elkarteak, bertze urte batez, mendi ibilaldia prestatzen ari da

Nerea ALTZURI

Oraindik neguan gaudenez, urruti ikusten dugu udaberria. Ez preziski negu tenoreko eguraldiak izan ditugulako, ez! Ez ohiko negua izaten ari da eta urtesasoari zati haundi bat kendu diogu tenoreko girorik izan gabe ia gehinean. Mendi ibilaldietarako izugarritzko aroak izaten ari gara eta espero dezagun udaberriaren egingen den herriko mendi itzulirako eguraldiak hutsik ez egitea. Dagoeneko laugarrenera ailegatu gara. Ilusioz ari dira lanean eta berriz ere Arantzako mendien zirkuan ibiltzeko aukera izanen du edonork.

Bertako nahiz kanpotik heldu diren mendizaleek parte hartzen dute. 2003an hasi zen Ekaitza Elkarteko mendi batzordea antolaketan lanean; 2004an bigarren edizioa egin zen; 2006an hirugarren aldian izan zen, bi urtero behin antolatzea erabaki bait-



ARGAZKIA: WWW.ARANTZA.NET

Maiatzaren 18an gure mendiez gozatzeko aukera izanen dugu Arantzako laugarren mendi itzulian.

zen; eta aurtengoa, maiatzaren 18an izanen da. Xehetasun gehiago hurrengo hilabeteetan emanen badizuegu ere, mendi itzuliko kamisetak dagoeneko salgai daude herriko elkartearen nahiz ostatuetan. Beraz, zuen agendan proposamen berri baten inguruko jaso duzue.

Landaketa eta kimaketa ikastaroa

Urtero bezala, Ekaitza nahiz Bagatxarreko mendietan zuhaitz landaketak egin dira zenbait larunbatetan.

Bertzalde, joan den otsailaren 11n kimaketa ikastaroa antolatu zuen Udalak. Goiz oso-

an kimatzen ikasten ibili ziren 20 bat lagun eta Xemordako Joxe Marik eman zuen eskola. Zinez gai interesgarria da, garaia ere badelako. Erantzun izugarria izan zuen aipatu proposamenak eta Joxe Marik emaniko azalpenak hitzez eta idatziz hartu zituzten parte hartzaile-

ak. Herriko lur sail bakoiko zuhaitzak eta Joxe Marik Xemordan dituen bertze zuhaitz erredondo batzuk kimatzen aritu ziren azalpenak lagun. Bertze egun bat antolatzeko gogoarekin gelditu ziren.

Hauteskundee-tako mahaian

Martxoaren 9ko Espainiako hauteskunde Orokorrei begira, mahaian egonen direnen izenak ere jakinak dira. Mahaiburua Izaskun Maiz izanen da, lehenbiziko mahaikidea Rosa Mari Maiz eta bigarrena, Felix Apeztxea Aizpurua. Ordezkoei dagoeneko, mahaiburuen lehen ordezkoa Seberino Iparragirre da, eta bigarrena Jon Koldo Arburua. Mahaikideen ordezkokoak: lehenbiziko mahaikidearenak Lurdes Goñi eta Juan Angel Lukanbio. Eta bigarren mahaikidearenak Maddalen Errandonea eta Jesus M^a Lukanbio.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETALAK

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalafaxzia
Tfnoa: 629449602 • BERA

LEGARRA
LIBURUAK
1€ 2€ 3€
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostatua
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urbategia
Ibardingo Lepoa • T: 948 631 209

BORTZIRIAK

FLASH

Emakumeen Egunaren harira, hainbat ekimen Bortzirietan

Martxoaren 5etik 13ra bitarte hainbat ekitaldi egingen dira

ttipi-ttapa

Emakumeen Nazioarteko Eguna da martxoaren 8a, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Bortzirietako Berdintasun Arloak, *Emakumeok badugu zer ikusirik* lelopean. Herriz herri egingen diren ekitaldien artean zine-foruma dago, emakumeen historia eta istorioen inguruan bortz herrietan eskainiko den filma sorta.

Etxalarren hasiko dute itzulua zine emankizunek. Martxoaren 6an Kultur Etxean 20:00etan *Emakumeon historia irudietan* bideo bilduma ikusi ahal izanen da, eta 20:30ean Isabel Coixeten *Mi vida sin mí* filma.

Biharamunean, **Lesakan** Erabilera anitzeko gelan, *Emakumeon historia irudietan* bideo bilduma ikusteko aukera izanen da 20:00etan, eta 20:30ean Almodovarren *Volver* filma.

Martxoaren 8an, **Berrara** ailegatuko da *Emakumeon historia irudietan* bilduma. 20:00etatik



Zine emankizunen kartel iragarlea.

aitzinera izanen da Kultur Etxean, eta ondotik, *Memorias de Antonia* filma ikusgai izanen da.

Martxoaren 12an, **Igantzi**ko Zahar Etxean hartuko du lekukoa *Emakumeon historia irudietan* bideo sortak.

20:00etan hasiko da eta ondotik, 20:30ean, Horganen *La boda de Muriel* filma eskainiko da.

Azkenik, martxoaren 13an **Arantzan** izanen da ikusgai *Emakumeon historia irudietan* bideo bilduma, hau ere,

20:00etan. Ordu erdi beranduago, *Fuego* izeneko filma eskainiko da.

Bertzalde, Bortzirietako Berdintasun Arloarekin elkarlanean, Bera-ko Uxua Emakume Taldeak erakusketa egingen du emakumeek egindako lanekin. Martxoaren 5ean erakusketako lanak bilduko dituzte, eta biharamunean zabalduko dute, 18:00etan. Ordu bete beranduago, *Mujer de mil caras* ipuina eskainiko da.

Martxoaren 7ko arratsaldean ere irekiko dute erakusketa, 6etatik 7etara. Aipatutako *Memorias de Antonia* filmaren ondotik 21:30ean afaria izanen da Zubiondo jatetxean. Izen ematea 948 625472ra deituta.

Martxoaren 8an, erakusketak hartuko du protagonismoa, goiz arratsaldez irekita egonen baita, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 9an ere zabalik egonen da eta hurrengo egunean itxiko dute.

Osasunbidean baldintzak hobetzea eskatzen dute

Osasunbideako sindikatuek landa eremuetako osasun zentroen egoerarekin ez daude ados. Hori salatu nahi izan zuten otsailaren 19an egindako protestan. AFAPNA, CCOO, ELA, LAB, SATSE, SMN, UGT eta USAE sindikatuen ustez ez da bete iazko abenduaren 13an Administrazioarekin sinatutako hitzarmena. Akordio horretan, errefortzuko langileen lan-baldintzak hobetzea eta poliki-poliki osasun zentro gehiagotan larrialdi zerbitzuak jartzeko azterketak egitea eskatu zuten sindikatuek. Gisa berean, errefortzu langile hauen kontratuak «esklabistak» direlakoan daude, urtean 3.000 ordu baino gehiago lan egin arren, 450 ordu bertzerik ez dituztelako kotizatzen. Nafarroako landa eremuetako osasun zentro guzietan langilego eskasia dela ere aipatu zuten sindikatuek, ez langileak falta direlako, proposatzen zaizkien lan-baldintzengatik baizik. Bera, Doneztebe, Elizondo eta Lesakako Osasun Zentroetan bat egin zuten mobilizazioarekin.

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanos desde 1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Arkitektoak
ARQUITECTURA ETA HIRIGINTZA

ETXESIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
BERA - Ertegarra, 8 behea - 948 625 232

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

Tel.: 948 581 488
Mug.: 630 354 818

Santiago, 55 2C
ELIZONDO

SUNBILLA

Sagardotegira irteera antolatu du Ulibeltzak Elkarreak martxoaren 15erako

Izen emateko epea igande honetan akituko da

Jaione OTXANDORENA

Azken urteotako ohi-turari segituz, Ulibeltzak Elkarreak sagardotegira joateko autobusa antolatu du heldu den martxoaren 15erako. 12:30 aldera aterako da autobusa Fonda ataritik, eta Oialume sagardotegian izanen da bazkaria. Arratsaldea han pasatu ondotik, bueltarako autobusa, ilunabarreko 8ak aldera izanen da.

Apuntatzeko epea ere zabalik dago eta igande honetan, martxoak 2, akituko da,

Inauterietako zerriak badu jabea

Azkenean atera da inauterietako zerriaren irabazlea. 5.374 zenbakiarekin Doneztebeko Jose Luis Andueza Oskoz Txilisek jaso du zerria. Zorionak, beraz!



ARTXIBOKOA

Xabierretera ateraldia

Urte berriarekin batera, Ulibeltzak Mendi Taldea ateraldiak egiten hasi zen. Berriki egindakoen artean, otsailaren 17an Peña Alba eta Arrikulunka mendietara antolatu zituen irteerak. Joan den igandean, berriz, haurrak Bardeetan izan ziren. Hurrengo hitzordua larunbat honetarako, martxoak 1, zehaztu dute. Helduentzako ateraldia izanen da eta aldi honetan Xabierreko Gaztelura joanen dira. Izen eman nahi duenak Bidal Ibarri erran behar dio.

Lasao

• egurrezko altzarria

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 · Faxa: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com
www.lasao.com



DONEZTEBE

Gazte Burrenberen etorkizuna kolokan dagoela ohartarazi dute batzordeko kideek

Jende berriaren beharra somatzen dute taldean

ttipi-ttapa

Gazte Burrenba ez dago bere garairik onean. Ez, horixe, junta-kideek etorkizuna kolokan ikusten baitute. Otsailaren 15ean bilera egiteko deia egina zuten batzordekideek, bertzeak bertze, junta aldatzeko, diru kontuei buruz solasteko eta ideia berrien inguruan hausnartzeko. Baina bazkide guztiei eskutitzak bidali arren, bederatzi lagun baino ez ziren hurbildu, eta guztiak batzordeko kideak edo hurbilekoak. Hori ikusita, zerbait egin behar dela iritzi diote oraingo batzordean. Doneztebeko gazte guztiei erantzuna emateko gai ez direla koan, jende berriaren parte-hartzea eskatu dute, herriari bizitasun kulturala emateko eta gazteria batzeko.

Otsailaren 15ekoaren ondotik, aste bete-

ko epea eman zuten hausnarketarako, eta joan den ortziralean, otsailak 22, elkartzekoak ziren. Lerro hauek idazterakoan ez genuen bilkura horren berririk, baina jende berriaren faltan, «*inork nahi ez duen erabakia hartzera behartuak*» egonen zirela iragarri dute: «*Burrenba bertan behera uztea*».

Agenda 21eko bigarren foroa ere egin da

Aitzineko alean aipatu bezala, abian dira Malerrekako Agenda 21aren foroak. Hain zuzen, bigarrena otsailaren 12an egin zen eta 30 lagun bildu ziren. Gai hauek landu zituzten.

Hezkuntzaren inguruan, Doneztebekoa alde batera utzita, herrietako eskola ttikietako ekipamenduetan gabezia nabaria dela azpima-



ARTXIBOA

Doneztebeko Stock Feriaren bigarren edizioa asteburu honetan egingen da.

rratu zuten bildutakoek, eta eraikin batzuk zaharkituak gelditu direla ere bai. Horrez gain, haurtzaindegiaren eta eskolaz kanpoko ekintzen beharra aipatu zen.

Osasun eta gizarte zerbitzuen alorraz ere mintzatu ziren. Zenbait herritan —Oitz, Donamaria eta Bertizarana— kontsultategirik ez dagoela nabarmendu zuten, eta daudenetan bitartekoak hobetu behar direla. Horrez gain, adineko jendeak eguneko zentro bat behar du.

Kultura, Kirola eta Euskara ere aztertu zituzten, eta bertzeak bertze, Kultur Etxerik eta igerileku estalirik ez dagoela azpimarratu zuten. Horrekin batera, herrien artean kultur jardueretan koordinazioa falta dela erran zen.

Bertzalde, bertako euskararen kalitatea galtzen ari omen da —gaztelarekin nahasteagatik—, eta zerbitzu publikoek euskaraz lan egiteko aukera bermatzea ere beharrezkoa omen da.

Hurrengo bilkura, ortzegun honetan, otsailak 28, egingen da Doneztebeko Erakusketa Aretoan, 19:00etan. Ekonomiaz eta tokiko eta eskualdeko kudeaketaz mintzatuko dira.

Xabierrera ateraldia

Urtero Xabierko gaztelura egiten den erro mesaldian Xabierraldia famatuan parte hartzeko autobusa antolatu du aurten ere Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak. Martxoaren 8an izanena da irteera. Izen ema-

teko epea zabalik dago eta martxoaren 5ean bukatuko da. Horretarako Titi ostatura joan behar da edo 948 450271ra deitu. Irteera goizeko 5etan egingen da Doneztebeko autobus geltokitik, eta autobusa Iruñeraino joanen da. Handik Xabierrera dauden 42 kilometroak oinez egin beharko dira. Itzulerako autobusa han hartuko da.

Stock feria

lazko arrakasta ikusita, aurten ere Stock Feria egitea erabaki du Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak. Larunbat eta igande honetan egingen da eta herriko merkatariek euren produktuak prezio onean paratuko dituzte salgai. Produktuen salmentaz gain, musika eta bert-

Martikorekin zu zeu sukaldari.

Martiko Pol Zain, s/n, 31790 Bera, Nafarroa. Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA Tolosa auzoa - LEKARIZ 948 452121 - 929 404217

LINDDURRENBORDA Nahar auzoa - LESAA 948 637212



Stockean dauden autoren bat erosteagatik, Parrot esku libreko sistema OPARI

PEDRO GARMENDIA, S.A

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685
Faxa: 948 580 973
ELIZONDO (Nafarroa)
garmendia@red.renault.es



Martxoa Km 0 eta auto ia berrien hilabetea



KANGOO EXPRESSION 1.5DCI 65CV
ABS • 2 airbag • Aire girotua • Ateen ixte-sistema zentralizatua • Beira-igogailu elektrikoa
Alboko ate bikoitz lerrakorra • Irratia MonoCD



KANGOO AUTHENTIQUE 1.5DCI 80CV TC
ABS • 2 airbag • Aire girotua • Kartar eta azpialde sendotuak • "Bide guztietarako" prestatua



KANGOO AUTHENTIQUE 1.9DCI 80CV 4x4
ABS • 2 airbag • Aire girotua • Irrati kaseta
4 gurpiletako traxzioa • Auto bat baino gehiago



TRAFIC COMBI 9 PLAZA PASSENGER 2.0DCI 115CV
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Beira-igogailu elektrikoa • Aire girotua • Irrati MonoCD
Erretrobisore elektrikoa • Auto bat baino gehiago



TRAFIC FURGON 1.9DCI 100CV 2.900 Kg.
Aire girotua • Eskuinaldeko ate lerrakorra
Irrati MonoCD
Zamak garraiatzeko zonalde sendotua



KM 0
MODELO BERRIA

LAGUNA EXPRESSION 1.5DCI 110CV
ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • ASR ESP
Argi pizte automatikoa • Euri sentsorea • Irrati MonoCD
MP3 • Abiadura mugatzailea • Larruzko bolantea
Esku libreko Bluetooth sistema



KM 0
MODELO BERRIA

LAGUNA DINAMIQUE 2.0DCI 150CV
ABS • 8 airbag • Aire-klimatizagailua • ASR ESP • Argi pizte automatikoa • Euri sentsorea • Irrati MonoCD MP3
• Abiadura mugatzailea • Esku libreko Bluetooth sistema
Larrua/ehuna sport tapizeria • Sport Dynamique bolatea



MODUS PRIVILEGE 1.5DCI 85CV
ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • Irrati MonoCD • Barruko ordenagailua
Argien pizte automatikoa • Euri sentsorea • Aluminiuzko gurpil-hagunak • Hainbat koloretakoak



MODUS DYNAMIQUE 1.5 DCI 85CV
ABS • 4 airbag • Aire-girotua • Abiadura mugatzailea
Irrati MonoCD • Barruko ordenagailua • Aluminiuzko gurpil-hagunak • Sabai panoramiko elektrikoa



CLIO EXPRESSION 1.5DCI 85CV 5 ate
ABS • 4Airbag • Aire girotua • Abiadura mugatzailea
Ateen ixte-sistema zentralizatua
Beira-igogailu elektrikoa • Erretrobisore elektrikoak
Irrati MonoCD • Hainbat koloretakoak



MEGANE CONFORT-EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS • 4 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Irrati MonoCD
Auto bat baino gehiago ditugu aukeran



MEGANE DYNAMIQUE 1.9DCI 130CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri sentsorea
Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminiuzko gurpil-hagunak
Barruko ordenagailua • Larruzko bolantea



MEGANE DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa • Euri sentsorea
Irrati MonoCD • ASR ESP • Aluminiuzko gurpil-hagunak
Hainbat koloretakoak • Barruko ordenagailua



SCENIC EXPRESSION 1.5DCI 105CV

ABS • 6 airbag • Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Irrati MonoCD • ASR ESP
Barruko ordenagailua



SCENIC DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV

ABS • 6 Airbag • Aire-klimatizagailua • Abiadura mugatzailea • ASR ESP • Fokuen pizte automatikoa
Euri sentsorea • Barruko ordenagailua • Aluminiuzko gurpil-hagunak • Larruzko bolantea • Erdiko kotsola

ITUREN

2008ko udal aurrekontuak 494.966 euroko diru sarrera-irteerak izanen ditu

Kopuru horretatik %42a inbertsionetara bideratuko da

Arkaitz MINDEGIA

2008an 494.966,12 euroko aurrekontua izanen du Iturengo Udalak. Gastuei dagokionez, hauek dira kapitulu bakoitzari dagokiona: langileen ordainsarrietan 35.940,06 euro, ondasun arrunta eta zerbitzuetan 84.861,51 euro; finantza-gastuetan 16.057,22 euro; transferentzia arruntetan 109.503 euro; inbertsioetan 211.009,92 euro; kapital transferentzietan 6.000 euro, eta azkenik, finantza-pasiboak deiturikoetan 31.594,41 euro.

Diru-sarrerari dagokionez, 294.260 euro Udalak hartuko dituen diru-transferentzietatik osatuko dira; 92.000 euro zergetatik; 20.330 tasetatik eta gainerako ondareen erabilpen eta aprobetxamendutik

Aurtizko saneamendu lanak direla-eta

Aurtitzen Legarra-Lacoz



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Errepidean bazter-babesak paratzen ari dira
Arriskua murrizteko helburuarekin bazter-babesak edo *quitamiedosak* paratzen ari dira herriko errepide bazter batzuetan.

eraikuntza enpresak ur hornidura eta saneamendu lanak egin zituen bere garaian, 14.348,40 euroko aurrekontuarekin. Baina lanak amaitu eta handik guttira arazoak agertu ziren. Kale batzuetako losak altxatuak, areka batzuk desbideratuak... Horren ondorioz, orain moldaketa lanak egiten ari dira.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Otsailaren 9an Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 37. edizioaren bigarren kanporaketa jokatu zen Herriko Etxeko ganbaran. 120 lagun inguru bildu ziren. Nafarroako Txapelketako bigarren kanporaketa lehena baino biziagoa

izan zen. Jendeak gozatu egin zuen saioarekin eta etxekoak animatu zituen, tartean baitziren Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu herri-tarrak.

Saio osoan lehia bizia izan zen Xabier Legarreta aranoar eta Xabier Terreros lesakarraren artean. Azkenean, lehena atera zen garai-

le, baina oso estu, puntu t'erdiko aldearekin. Etxean aritu ziren Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu iturendar gazteak atzetik gelditu ziren, laugarren eta bosgarren postuan, hurrenez hurren, baina puntuazio polita lortuz. Zorionak, hala ere!

Maika Ariztegi kros luzean

Nafarroako kros luze txapelketa jokatu zen otsailaren 17an Tuteran eta han izan zen Maika Ariztegi ere. Aitzineko alean Nafarroako kros laburrean egin dako lana aipatu genuen, eta aldi honetan, berriz, Beste Iruña taldeko herritarra zazpi garren izan zen lasterketan kros luzean. Nafarroako txapelketan, berriz, bosgarren gelditu zen. Emakumeen artean taldeka irabazle izan zen Beste Iruña eta, beraz, postu horrekin garaipenean lagundu zuen Maikak.

BEINTZAKO OSTATUA
☎ 948 45 00 14
ORBELA

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA

APARAN, S.A.
BIBIKOLALA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako eta DBHko testuliburuak dohainik izanen dira hurrengo ikasturtetik aitzinera Nafarroan

Ikastetxeek liburuak erosiko dituzte eta mailegu bidez funtzionatuko dute

ttipi-ttapa

2008-2009 ikasturtetik aitzinera, derrigorrezko hezkuntzan ari diren ikasleek dohainik jasoko dituzte testuliburuak. Horrela onartu zuen Nafarroako Parlamentuak otsailean, aho batez. Foru Lege berriak 6tik 12 urtera bitarte Haur Hezkuntzan ari diren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) dauden 12tik 16 urterarteko ikasleei eraginen die. Ikastetxe publiko zein itunpekoak (kontzertatuak) eurek izanen dira testuliburuak erosiko dituztenak eta ikasleen esku utziko dituzte. Hortik aitzinera, mailegu bidez funtzionatuko du sistemak. Halere, ikastetxeek lau urteren buruan, berriro erosi beharko dituzte liburuak. Proposamena Nafarroako Ezker Batuak aurkeztu zuen eta guztiek onartu zuten.

Testuliburuak erosten dirutza joaten da, kalkulatzan denez, 100 eurotik 300 eurora artean. Hala, Nafarroako Gobernuak gastu horri aitzin egiteko hiru milioi euro bideratuko dituela iragarri du 2008ko aurrekontuetan. Egitasmoa hurrengo ikasturtean sartuko da indarrean, eta 2011-2012rako guztiz ezarria izanen den neurria izanen omen da. Oraingoz Haur Hezkuntzari eta Derrigorren Bigarren Hezkuntzako ikasleei eragiten badie ere, zenbait alderdik (EB eta PSN tartean) DBHtik aitzinerako mailetan ere aplikatu daitekeen neurria izan litekeela adierazi dute.

Testuliburuak lau urteren buruan berriro beharko dira, erosi, alegia. Halere, Haur Hezkuntzako tikiak kasuan, 6-7 urtekoetan, tikiak izanik, materiala maizago erosteko aukera egonen da.

SINDIKATUEK HIRU GREBA EGUN DEITU DITUZTE IRAKASLEENTZAT

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak irakasleen oposizioak eta zerrendak baloratzeke ezarri nahi duen sistema berriarekin ez daude konforme irakasleak. Hala, irakasleentzako AFAPNA, CCOO, CSEI-CSIF, ELA, LAB, STEELAS eta UGT sindikatuek greba egunak deitu dituzte otsailaren 28 –ortzegun hau— eta martxoaren 4 eta 6rako. APS da deialdiarekin bat egin ez duen sindikatu. Lehen-tasunezko zerrendak erretiratzea eta antzinatasuna kobratzeko eskubidea dira, bertzeak bertze, irakasle interinoek eskatzen dituztenak.

Carlos Perez-Nievas Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak, bere alde-tik, bitartekoak edo interinok kontratatzeke sistema berria defendatu du, uda honetan eginen diren Bigarren Hezkuntzako oposizioen ondotik martxan paratuko dena, hain zuzen. Lehen-tasunezko Zerrendaren sistema oposizioak gainditu dituztenen mesederako izanen da. Baloratzerakoan, merezimenduak %40an hartuko dira aintzat, eta oposizioak gainerako %60an, beti ere, azterketa gainditu baldin bada.

www.nafarroakotzapelketa.com

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

08

3. finalaurrekoa
Martxoak 1, Bera
Kultur Etxean, 18etan

Migel Mari
Elosegi "Luze"

Eneko
Lazkoz

Jon
Elizetxe

Jon
Barberena

Juan Mari
Lopez

Ander
Fuentes

arlotzatzailea:
Nafarroako
Bertsolaria
Elkartea

laguntzailea:
ttipi-ttapa

Lur

martxoak 1 larunbata

BERRI TXARRAK

+ LAYO RASER

00:00 12€ aurretik 15€ takillan

martxoak 8 larunbata

TRIKIDANTZ

00:30 8€

martxoak 15 larunbata

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

17:00

RUBEN LUR GONBITES

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

MAKALA

martxoak 19 asteazkena

JALISKO BAND

00:30 9€

martxoak 22 asteazkena

KAOTIKO

00:00 12€ aurretik

+ **ufestuek**

15€ takillan

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Heineken



Bartango Udala

ESKUALDEA

Kontrolatu gabeko larre-erretzeek suteak eragin dituzte eskualdean

Otsailaren 17an 60 hektarea erre ziren Elizondon



ttipi-ttapa

Hogeitik goiti izan dira azken asteetan eskualdean izan diren suteak, gehienak ere kontrolatu gabeko larre erretzeen ondorioz. Urtarrilaren 15ean zabaldu zuen Gobernuak basoetako neguko kanpaina, larre erretzeak hobeki kontrolatze aldera. Apirilaren 21a bitarte erre ahal izanen dira larreak, aitzinetik Ingurumen Departamentuan baimena eskatuta. Baina Nafarroako Larraldietarako Zerbitzuak errandakoaren arabera, goiti egin dute nabarmen nahita eragindako suteek otsailean, eta kalte larrienak Baztan, Bortzirriak, Ultzama eta Belaten gertatu dira.

Hilaren 19an suhiltzaileek Ibardinetik hurbil, Urruñan sortutako sute bat artatu behar izan zuten. Egun berean, Aritzakunen, Otsondotik hurbil, bertze sute bat sortu zen. Alman dozen lau hektarea erre ziren otsailaren 11n eta Zugarramurdi bertzeko bi hektarea. Erratzuko Iñarbil auzoan, Lekarozko Legate mendian eta Irurritako errekan ere izan ziren suteak. Dena den, otsailaren 17an, Elizondoko Berro auzoan gertatu zen suterik handiena. Izan ere, 60 hektarea eta 13.000 zuhaitz erre zituen suak Goizegain inguruan. Sutea herrilurretan gertatu zen, baina Baztango Batzar Orokorak baimendutako plantazio pribatu bati eragin zion.

P A C 2 0 0 8
ORDAINKETA BAKARREKO ARAUBIDEA



Ahaleginik txikiena ere
handia da nekazaritza eremuarentzat

Jartzazu PACaren tramitazioa Rural Kutxaren esku

nire aukera



RURAL KUTXA. LANDA EREMUAREN BALIOA

LEITZA

Langileentzako informatika ikastaroak martxotik aurrera

Hiru zatitan banatu dira, eta lehena martxoaren 6an hasiko da

Joseba URKIOLA

Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuak, Cederna Garalur Elkarrekin eta Langileen Batasun Orokorra (UGT) elkarlanean, Nafarroako enpresetan ari diren langileei zuzenduriko ikastaroak antolatu dituzte. Jardunaldiak %100ean diruz lagunduak dira eta parte hartu nahi dutenei eskatzen zaien bakarra Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, Autonomoen Erregimen Orokorrean edota bestelako Erregimen Bereziren batean kotizatzen egotea da.

Hiru zati desberdinetan banatu dituzte ikastaroak. Lehenengoan, informatikarekin hasierako hartu-emanaz izateko 40 orduko ikastaroa eskainiko da. Honen martxoaren 6tik 26a bitarte iraunen du. Bigarrena apirilaren 7tik 24ra izango da eta 40 ordu internet eta posta elektronikoa lantzeko asmoa dago. Azkenik, 60 orduko ikastaro trinkoa antolatu dute. Maiatzaren 5etik 30era bitarte iraungo luke eta Photoshop irudiak lantzeko programaz arituko dira.

Ikastaro guztiak Leitzako Amazabal Institutuan eskainiko dira eta ordutegia 17:00etatik 20:30era izango da. Antolatzaileen arabera, taldeak 15 partaidetakoak izanen dira. Informazio gehiago eskuratu edota izena emateko, 948625122 edo 948153172 telefonotara deitu daiteke. Baita bidasoa.admon@cederna.es edota solicitudes@navarra.ifes.es helbideetan galdetu ere.

Mendi Taldeak denboraldi berria prest

Mendibil Mendi Taldeak pasa den urtarilaren 20an ekin zion 2008ko egitarauari. Aurreneko ere, abendua bitarteko txoko eta leku ugari bisitatzeko parada izanen dute mendizaleek. Batzuk Leitzatik nahiko hurbil daudenak izanen dira: Eguzkiko Muñoa, Ipulioño, Ulizar, Kornietza eta Erakurri, adibidez. Beste batzuk, aldiz, Euskal Herriko gune desberdinetan daudenak dira: Aspe Mendia, Ernio, Anboto, Urdaia...

Horrez gain, kuota bakarra delakoaren sistema abian jarriko dute. Honen arabera, Mendi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek Nafarroako Bertsolari Txapelketan

Otsailaren 8an Leitzako Aurrera Kirol Elkartean egoitzan eman zitzaion hasiera aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketari. Jendetza andana bildu zen sei protagonistak entzun eta txapelketaren lehen hasperenak barneratzera. Diego Riaño herriko semeak eman zion hasiera saioari eta azken bertsoa Juan Mari Lopez Lesakan bizi den oiartzuarrak aireratu zuten. Bi hauek izan ziren, hain zuzen, finalerdietara sailkatzeko txartela eskuratu zutenak. Aimar Karrika, Iñaki Aleman, Ekaitz Astiz eta Iker Iriarte aurtengo lehiatik kanpo geratu ziren. Leitzako saiotik jada hiru aste igaro dira, eta azken finalerdia eta final handia besterik ez dira geratzen. Diego Riaño otsailaren 16an Txantreako Ama Salestarraren aretoan egin zuten saioaren ondotik ez da final handian izango. Datorren asteburuan, Miguel Mari Elozegi Luzeren txanda izango da. Hitzordu nagusia larunbatean Berako Kultur Etxean izango da 18:00etatik aurrera.

bilekoek eta Aurrera Kirol Elkartekoek erabateko batasuna izanen dute. Mendi Taldekoak direnak Aurrerakoak ere izanen dira eta ez dituzte bi kuota desberdin ordaindu beharko. Lehen ere Mendibil Aurrerarekin hartu-emanetan zegoen, baina finantziario kontuak menditalkoak bere kabuz kudeatu behar izaten ziren.

Kulturak ere nahiko garrantzia izanen du. Hala, datorren hilean Barkoxeko Ahargora egingen duten ibilaldian,

Zuberoako gune paregabeak ezagutzeaz gain, Arrokiagako Maskarada ikusteko aukera izanen dute.

Guraso eta etxeko txikienean parte hartzeko ateraldiak ere antolatu dituzte. Ibilaldi hauetako asko Leitzatik gertu dauden guntaratar bideratuta daude. Nabarmendu, 8 urtetik beheragokoek gurasoak lagun dituztela joan beharko dutela.

Zine emanaldiak azken txanpan

Ihoteek eragindako at-

sedenaldira behartuta egin eta bi film eskaini ostean, aurtengo ikasturteko zine emanaldiak azken txanpan sartu dira. Pasa den asteburuan, Patricia Laconteren *Mi mejor amigo* lana plazaratu zen. Datozen emanaldietan, berriz, *Hulk*, *Brokeback Mountain* edota *Tigre y Dragon* bezalako lan ezagunak egin dituen Ang Lee zuzendari taiwandarraren *Deseo, peligro* edota Lucia Puenzo argentinarren *XXY* filmak ikusteko aukera egonen da.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inuñea · irabeiko monastegia 62, 4ºC · 31011

LABEKO
LABORANTZANERREN
FRAN AIZUA · LESAKA
Tfn. 948 637 826

ALBERTO RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

ARESO

Euskararen Eguna ospatuko da larunbat honetan

Trikitilariak, taloak, dantza, pilota partidak, herri bazkaria, magoa eta txokolatada izango dira

Juana Mari SAIZAR
Larunbatean, martxoak 1, Euskararen Eguna egingen da. Hainbat ekitaldi izango dira egun osoan: trikitilariak, talo dastaketa, dantza, pilota partidak, herri bazkaria, Eritz magoa... Txokolatadarekin bukatuko da egitaraua. Egun osoan Nafarroa Oinezko materiala ere salgai egongo da.

Larre-erreketa berezia

Merkuko eguteren erreketa berezia egin da baso komunalean, erabat kontrolatua. Ingurumen Departamentutik landa-patruila eta suhiltzaileak etorri ziren, eta herriko jende eta briga-

da berezi batekin erre zuten basoa, modu berezi batean. Aresora lehenengo astean etorri ziren baina haizea zela eta, atzeratu egin zuten egin beharra. Heren bat erre dute oraingoz, haritzak, gaztainak, gorosti eta ipuruak erabat babestuta. Hori lortzeko, lehenik eta behin zuhaitz ingurua erretzen dute eta ondoren ondoko lur guztiari ematen diote su. Horrela zuhaitzak ez erretzea lortzen dute.

Hauteskunde mahaian

Martxoaren 9ko hauteskundeetan mahaia honako hauek osatuko dute: M^a Carmen Mayoral Iglesias mahaibu-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Rokodromoa eta tirolina jarri dituzte haurren gozamenerako. Nahi denean erabiltzeko prest egongo dira.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Kirmen Uribe poetak saria eman zion otsailaren 20an Mikel Onsalori, Mikro-lpuin lehiaketako irabazleari.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Aurtengo inauterietan lagun-arteko kideak txatxoz jantzi ziren.

ria izango da, Juan Tomas Pellejero Rezola le-

henengo mahaikidea eta Juan Pellejero Mu-

gerza bigarren mahaikidea.

www.ttipi.net
ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta gozagarriak

Behetik
AULOI-JASORAILAK

Aforagatziki 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20016 DONOSTIA

Huzia
Tecnología e Innovación

HIDROREHINTZA
HIDROSIEMBRAS

PERMANENTEMENTE LARRALDEA

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

GOIZUETA

Erantzun gogorra eman dio herriak Madriletik etorritako erasoari

Udalbatzak aho batez salatu zuen EAE-ANVren suspentsioa

Esteban AROTZENA

EHAK eta EAE-ANV alderdi independisten suspentsioa salatzen ezker abertzaleak bultzatutako deialdi ezberdinek erantzun haundia jaso zuten herrian. Kontzentrazioak jendetsuak izan ziren, eta gainera, hilaren 14ko greba erabatekoa izan zen.

Hilaren 12an aparte-ko plenoa burutu zen Herriko Etxean Garzon epaileak sinatutako eraso hauek salatu asmoz. ANVk aurkeztutako mozioak zioenez, independentziari atek itxi nahia da, besteak beste, suspentsioen helburua. Udalak larritzat jotzen du hau, eskubideen kontrako eraso delako eta independistak «*kriminalizatzen*» dituelako. Honetaz gain, Udalbatzak babes osoa eskaini zien ANV taldeko kideei. Aho batez onartu zen mozioa, baita hilaren 16an plazan kontzentratzeko deialdia ere.

Hautes-mahaietan herritarrak

Dagoeneko jakinak dira martxoaren 9an bi hautes-mahaia osatu dituzten herritarren



ARGAZKIA: GORKA IRAZUSTA

Hilaren 12an udaletxean ez ohiko plenoa egin zen, eta EAE-ANV alderdiaren jarduna etetea aho batez gaitzetsi zuen Udalak.

izenak. A mahaiko presidentea Maria Aranzazu Ansa izanen da. Igor Apezetxea eta Josune Apezetxea edukiko dituen ondoren. B mahaia, berri- z, Jaione Jimenezek —presidentea—, J. Jaber Indakoetxeak eta Maria Antonia Larrartek osatuko dute.

Mozorroen Taldearentzat laguntza

Mozorroen Taldeak dirulaguntza jasoko du aurten ere Herriko Etxetik. 3.520 euroko aurkorkuntua aurkeztu zuen

eta heren bat, 1.174 euro, alegia, emanen dio Udalak. Beste hainbeste jaso du karnabalen antolatzaile den talde honen Umore Ona Elkartetik.

Sagardotegira irteera

Urtean zehar burutzen dituen «*kultur*» ekitaldien barrenean, sagardotegira irteera antolatu du Gazte Asanbladak martxoaren 15erako. 12:30ean aterako da autobusa herri- tik (5 euro) eta goizeko 4:30 inguruan bueltatu-

ko da. Presarik gabe, beraz. Amaiarenean dago autobuserako izena emateko zerrenda.

Umore Onaren urteko batzarra

Larunbat honetan, martxoak 1, egingen du Umore Ona Elkarteak urteroko ohiko bilkura. 18:00etarako luzatu dute deialdia. Zortzi puntuko gai zerrendatik batek ematen du atentzioa nagusiki, elkartearen aplazioari buruzko eztabaida proposatzen duenak, hain zuzen.

ARANO

Suro urez hornitzeko ur-biltegi berria egingen da

Kontxi KLABER

Denak dakigu nolako arazoak sortu izan diren Suro auzoan batak bat uda partean, ura jasotzeko depositoa egoera txarrean zegoelako eta jario handiak izaten zituelako. Banaketarako tuberiak zer esanik ez, zaharturik zegoen eta nonahi isuriak zituen. Honi aurre egiteko duela bost urte eman zitzaion hasiera Suroko ur sarea berritzeari eta geroztik ez dugu ur eskasirik izan auzoan edo auzoko etxe batzuetan. Orain depositu edo biltegi berria egin eta herri- tik Surorainoko kondukzio berria izango dugu, lehengo erre- serba moduan utziz. Lanak 230.000 euro kostako dira, eta horietatik 170.000 euro Gobernuak emanen ditu. Obrak egingen dituzten Haritza enpresa ari da.

Baso-berritzea Suron

Itturro mendian 9,50 hektaretan alertzea, lizarra, astigarra, haritza eta urkia landatuko dira. Nafarroako Gobernuak ordainduko du gastua bere osotasunean. Pinu Insignisaren *fusarium* gaitza dela eta, Udalak jasan ditzakeen kalteen ordainetan egingo da landaketa hau.

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491

Mercedesa eta 34 ZUBIETA

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

BAZTAN

Guraso eta haurrek euskara gehiago erabiltzeko 'Plaza Jostaldiak' abiatu dira

Baztango Udalaren Euskara Zerbitzuaren ekimenez

ttiipi-ttapa

Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuak egitasmo berritzailea abiatu du. Asmoa ere argia da: gurasoak eta haurrak elkarrekin jolastea, baina euskaraz. Horretarako begirale batzuk ibiliko dira herriz herri. Baztango Euskara Zerbitzuaren nahia ongi pasatzea da, jolas eta kanta berriak ikastea, eta hori dena gure hizkuntza erabiliz egitea, euskara. Plaza jostaldia astean behin egingen da jolastoki bakoitzean, beti ere, 16:30 aldera. Asotelehenetan, Arizkungo eskola ondoan bilduko dira, asteartetan Oronozko eskola ondoan, asteazkenetan Elizondoko ikastola tikiaren parkean, ortzegunetan Elizondoko San Francisco ikastetxearen ondoan eta ortziraletan, Iruiritako eskolaren ondoan. Maiatza akabaila

arte egingen dira Plaza jostaldiak, baina erantzunaren arabera luzatu ere egingen ahal da.

ERABILERA HEDATZEKO

Raul Lopez, Baztango Euskara teknikariaren erranetan, «*neska-mutikoak ikastetxetik ateratzen direnean, gurasoak kontu kontari eta haurrak jolasean aritzen dira. Aunitzetan gurasoak kontu kontari erdaraz aritzen dira elkarren artean, eta nahiz eta umeari euskaraz egin, hauek ohartzen dira gurasoek zein hizkuntza erabiltzen duten. Horrekin hizkuntza erabiltzeko araua ezartzen diegu umeei. Hori hausteko eta euskararen erabilera emendatzeko antolatu dugu plaza jostaldia».*

Berroetako Arantxa Gamio ariko da begirale gisara, eta beharra



ARGAZKIA: ONDIKOL

Udala eta Irungo Arte Eskolaren arteko hitzarmena
Baztango Udalak Irungo Kunsthal Arte Plastiko eta Diseinu Eskolarekin hitzarmena sinatu du. Akordioak bi helburu nagusi ditu: batetik, Kunsthal zentroko ikasleei Baztango zenbait eremu publikoren inguruan hausnartzeko eta proposamenak aurkezteko aukera ematea, eta bertetik, Udalak toki publiko horietan jarduteko irizpide berritzaileak kontuan hartzea. Hitzarmena otsailaren 13an sinatu zuten, Udalaren izenean, Virginia Aleman alkateak eta Kunsthal zentroaren izenean, Jose Manuel Carrilo Artola zuzendariak. Otsailetik ekainera bitarte ikasleak bi arlotan arituko dira. Alde batetik, zabor edukiontzien inguruan hausnartu beharko dituzte proposamenak —kamuflajea, balioaniztasuna eta grafismo aplikatua oinarrituz—. Bertetik, berriz, Baztan Berriko Plazaren itxura hobetzerakoan ideiak proposatu beharko dituzte. Egindako lanak erakusgai paratuko dira herritarrek ikus ditzaten.

ren arabera, Haur Eskolan aritzen diren bertze bi begirale izanen dira, «*honek gaitan esperientzia dutenak».*

Baztango zerrikumea produktu bereizgarria

Baztango zerrikumeari balio erantsi bat emateko dastaketa egin zuten Iruñeko Anaitasuna Kirol Elkartearen ot-

sailaren 18an. 40 adituk zortzi zerrikume probatzeko aukera izan zuten. Baztango zerrikume gozoena bereizteko helburuarekin, Abeltzaintzako Institutu Teknikoak 2006an abiatu zuen proiektua, kontsumitzaileari produktu bereizgarria eskaintzeko eta etorkizunera begira Nafarroa iparraldeko usiategi tikiaren ekonomiari laguntzeko. 'Baztango

zerrikumearen tipikazioa' izeneko egitasmoarekin zerrikumea bezalako produktu tradizionala bereizgarria izatea nahi da. 20 arraza diferentetako zerrikumeak daude, eta horien artean Baztanen ohikoena direnak hautatu zituzten: *euskal zerrri autoktonoa, pietren* arraza. eta *pietren* eta *lague white* arrazen arteko nahasketakoa.

Maderas
GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarrimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iñare karkka
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Baztango Udaletxea eraberritzeko lanak 112.683 euro gostako dira

Nafarroako Gobernuak gastuen %75a baino gehiago ordainduko du

Maite OTEIZA

Baztango Herriko Udaletxea berritzeko lanek 112.683,14 euroko aurrekontua izanen dute. 2005 eta 2008 urteetarako onartutako Toki Azpiegituren Planaren barrinean dago, eta teilatua eta aitzinaldea izanen dira batez ere konpondu eta berrituko direnak, hezetasanak arazoak eragin baititu. Etxearen barreneko aldetik, euri-urak husteko hodiak ez du ongi funtzionatzen eta horrek, harria ez ezik, zura ere kalte du. Honela, 775 metro koadroan teilak eta euriarentzako hodiak aldatuko dira, eta fatxada edo aitzinaldeari dagokionez, garbitu eta pintatu egingen da.

Nafarroako Gobernuak 84.913 euroko dirulaguntza emanen du, beraz, gastuen %75a baino gehiago Gobernuak ordainduko du.

Perez-Nievas Baztango ikastetxeetan

Aspaldiko partez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria den Carlos Perez-Nievas Baztango ikastetxeetatik bisitan etorrri zen. Azpilkueta, Ariz-



ARGAZKIA: ONDIKOL

San Blas Eguna ospatzen

Elizondoko Urpe elkarteak patrioiaren eguna ospatu zuen San Blas egunean. 50 lagunetik goiti elkartu ziren eta bazkari eder bat egin zuten. Argazkian, Javier Ruiz de Larrinaga, Leandro Petrikorena, Jose Félix Zabala, Juanjo Erice, Patxi Azkarate, Juani Garmendia, Jose Luis Belzunegi, Josema Osakar, Patxiko Oiarzabal, Esteban Sanzberro, Joakin Zubikoa eta Agustín Urrutia ageri dira. Ondotik bertze 50 lagun hurbildu ziren. Nertzalde, otsailaren 10ean, Irurritako Gure Kaiola elkarteak urteko bazarra egin zuen. Urteko kontuez, konpoketez eta proposamenez solastez gain, zuzendaritza talde berriko presidentea hautatu ziren. Oraingo zuzendaritza taldeak —Jose Javier Bazterrika (presidentea), Cristina Arregi, Miguel Angel Adin eta Iñaki Zabaleta osatua— Pello Perotxenari lekukoa pasatuko diote, hurrengo bi urtetarako. Akabaila emateko elkarteak kideen bazkaria izan zen.

kun, Irurita, Oronoz eta Almandozko herri eskoletan, eta Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxean eta Baztan Haur Eskolan izan zen.

Baztango Udaletik eskoletan egiteko daudden obrak edo zenbait herritan daudden ikastetxe berrien beharrak

(espazio eta baldintzen faltagatik), egizko premiak direla ohartarazi zen.

Almandozko eskola, 2008/09 ikasturterako irekiko dela baieztatu zuten, oraingo instalazioak ikusi ondoren; lehenetasuna Irurritako eskolari eman zitzaion:

eraikuntzaren baldintzak eta errekreoan egoten diren lekuagatik (erreboteko plaza); Oronozko eskolan ere, espazio arazoak direla-eta, beharra ikusi zuen, baina proiektua aitzineratuko utzi zuten; Azpilkuetak eskolan bertze gelaren baten beharra ze-

FLASH

Asteburu Kulturala Berroetan

Berroetako Gure Ametsa Elkarteak II. Asteburu Kulturala antolatuko du.

Ortzirala, otsailak 29

- Ipuin kontaketa, 17:00etan Batzar Gelan.
- Papera birziklatzeko tailerra. 17:00etan Karlos Garaikoetxearekin.
- Txokolatada, 18:30ean.
- Gaztetxoentzako mus txapelketa 19:00etan.
- Gaztetxoendako aforia, 20:30ean.

Larunbata, martxoak 1

- Frutarbolen kimaketa ikastaroa, 9:00etan.
- Hennazko tatuajeen ikastaroa, 10:00etan.
- Basaburuko herriak nola haunditu. EHUko ikasleen lanak ikusgai, 18:30ean.
- Kantu aforia, 21:00etan Pello Zabaltza eta Joxe Angelekin.

Igandea, martxoak 2

- Behorren hezkundearen ikuskizuna, 11:00etan.
- Ardi zakurren erakustaldia, 12:00etan.
- Ardien ile mozketaren erakustaldia, 13:00etan.
- Bazkaria 14:00etan.
- Tuku-keta txapelketa, 17:00etan.

goela onartu zuen Perez-Niebasek eta Arizkongo eskolan egin diren berrikuntzak eza-gutu zituen. Elizondon, Haur Eskola berriaren obren martxa hurbiletik segitzeko parada izan zuen eta San Francisco Javier ikastetxean ere izan zen Hezkunt-

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfona: 948 561 953
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenerdik larunbatara:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

MENDIALDE
Jatetxea

Tfona: 948 453 060
N.121-B.165 km
T. AMAIUR

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Ipuin kontalariak emanaldia eskaini zuen otsailaren 7an Ospitalean

Museoaz gain, hainbat erabilera ematen zaizkio eraikinari

Koro eta Margari

Herrian Ospitalea izenarekin ezagutzen dugunari erabilera aunitz ematen zaizkio. Ezagunena Museo baldin bada ere, horrez gain, bertze gauzetarako ere erabiltzen da. Azkeneko pisua hutsik dago eta toki hori baliatu zen joan den otsailaren 7an Guraso Elkarteak antolatutako ipuin kontalariaren emankizunearako.

Ipuin kontalaria Estitxu Mentaberri izan zen, gure herria ongi ezagutzen duen neska, Malasta etxeko familia-koa baita.

Hauteskundeetan mahaian egonen direnak

Bertze herrietan bezala, heldu den martxoaren 9an egingen diren Espainiako hauteskunde Orokorretan herriko mahaian nor egonen diren erabakita dago. Hauek dira izendatuak:

Lehendakaria Bartolo Agueralde izanen da eta bere ordezkokoak Cristina Indaburu eta Maddi Andueza.

Lehenbiziko bokala edo kidea Miguel Herandorena izanen da eta bere ordezkokoak Maria Antonia Irigoyen eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Akelarrea Fiturren

Otsailaren 2 eta 3an Zugarramurdiko antzerki taldeak Akelarre bat eskaini zuen Madrilgo Fitur turismo azoka ezagunean, Sorginen Museoari publizitatea eman nahian. Antzerkiaren bidez akelarre baten bi alderdiak erakutsi ziren: inkisidoreek zabaldu zutena batetik, eta egiazko akelarrea bertetik (hau da, akelarrea besta eta tradizio zaharrak zirela). Ikusmin handia sortu zuen Madrilan, han ikusten ziren ikuskizunekin ez zuelako deus ikustekorik, arras diferenta zelako: jauntzietako zapel luzeak, txalaparta, akerra, Mikel Laboaren *Baga-Biga-Higa...* Taldea kontent itzuli zen herrira, gustura aritu zirelako beren lanean, eta ustez publizitate aldetik ere lortu zelako oihartzuna ematea. Argazkian ikuskizunean parte hartu zuten taldeko kideak ageri dira: Cristina, Inma, Alfredo, Xabier, Asun, Javier, Gurutxe, Garazi, Bixente, Marifa, Pantxika, eta Koro. Taldekoekin batera, Ainhoa Agirre Museoko kudeatzailea eta Fernando Hualde historia-laria ageri dira.

Elena Apeztegia izanen dira, hurrenez hurren. Bigarren bokala, berriz,

Kaiet Agerre izanen da, eta Maria Eugenia Jaurena eta Iñigo Arburua

izendatu dituzte mahaian bere ordezkokoak izateko.

1951tik lentzeria-etxea

Casa Cambra

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak

mantelak

edredoi nordikoak

kuxinak

ohe estalkiak

maindireak

toailak

edredoi-azal nordikoak



SENPERE

Hiru zerrenda lehiatuko dira herriko bozetan

Lehen aldikotz, hiru senpenterrek parte hartuko dute kontseilari nagusi izateko lehian

Franck DOLOSOR

Martxoaren 9an eta 16an, herriko auzapeza eta kontseilua hautatzeaz gain, Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusia ere izendatu beharko dute senpenterrek. Azken hau, eskualdeko ordezkaria izanen da Pirineo Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusian, Pauen. Lehen aldikotz, hiru senpenterrek parte hartuko dute lehia honetan, Christine Bessonart Bernard Auroy hautagai zentristaren ordezkaria da eta Mixel Mendiboure Euskal Herria Bai koalizioko hautagaia da. Bertalde, Christian Fourgeau, azken urteetan herriko kontseilaria izan dena, ezkerreko hautagaia da Ezpeletako kantonamenduan.

CHRISTINE

BESSONARTEN TALDEA

Herriko bozetan, hiru zerrenda presentatu dira. Azken zazpi urteetan auzapezaren aukerian jarri da Christine Bessonart eta kargu hau atxiki nahi du. Kultur areto bat eta osoki euska-

raz ariko den haurtzaindegia egin nahi ditu eskola publikoaren ondoren. Hiru urte dituen tokiko hirigintza plana (PLU) berriz ikusi nahi du.

PIERRE-MARIE

NOUSBAUMEREN TALDEA

Parean Pierre-Marie Nousbaumek gidatzen duen *Senpere 2008* taldea dago. Karrika nagusia eta herriko auzotegi guziak berpiztu eta lotu nahi ditu. Herritarrekin debate zabala sortu nahi duen talde honen laborantzaren herriko kontseilu berri bat eta euskara, kultura eta ondarea sustatuko dituen herriko erakunde berria sortu nahi ditu herriko 74 laborariak laguntzeko eta euskal nortasuna sustatzeko.

ABERTZALEEN TALDEA

Abertzaleen taldeak ekonomia berpizteko ordezkari sortu eta hazi transgenikoak debekatu nahi ditu. Saihasbidearen proiektua hobetu nahi dute, gaztelua erosi eta berritu nahi lukete eta kultur gela handia altxatzearen alde daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

Christine Bessonart buru duen taldea.




UTZITAKO ARGAZKIA

'Senpere 2008' taldea



UTZITAKO ARGAZKIA

Abertzaleen Taldea



SARA

Mixel Guerendiain kantonaletan aurkeztuko da EH-Bai koalizioarekin

‘Loreak mendian, hondarkinak lurpian eta bideak gainian’ antzerki-bertsoaldia igandean

Xan HARRIAGUE

EH Bai koalizio abertzalearen hautagai nagusia Mixel Guerendiain saratarra izanen da Ezpeletako kantonamenduan. Euskal departamenduari buruzko erreferenduma defendatuko du Mixelek, baita Iparraldearentzako eskumen zabaleko kuadro instituzional bat ere. Bertze ardatz nagusietariko bat euskara izanen da, hala, koofizialtasuna, eta erabileraren laguntzea. Hautatua bada, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremana hobetzearen alde eginen du.

Herrian bizi eta lan egitearen eskubidea da

EH Baik berea egiten duen bertze helburuetako bat. Haien ustez, Euskal Herritar orok izan beharko luke herrian bizitzeko aukera, baina horretarako hemengo ekonomia eta hemengo lantegien laguntzea behar-beharrezkoa ikusten dute, ez da bertze alderdiek egiten duten bezala usina handiei erraztasun guziak eman. Azkenik presoak Euskal Herritarzearen aldeko legea aplikatzea galdetuko dute.

Finitzen ari den legegaldi honetan, Jean Mixel Galant Azkarra-teko laboraria izan da kontseilu orokor abertzale bakarra, eta berri-



ARGAZKIA: JON ETXEBESTE

Inauteri jendetsuak aurtengoak

Aurtengo inauterietan nehoiz baino gazte gehiago bildu ziren, andregai eta senargaiak ez zuten hutsik egin, ezta hartzak ere. Heldu den urtekoen zain egon beharko dugu orain.

kitan erran duenez, «Pauen, Euskal Herriari ez diote kasurik ere egiten».

Antzerki ikuskizuna igandean Lurberrin

Ikastola ez da unatzen. Inauteriak pasatu berri direla, bertze ekitaldi kultural bat anto-

latu du. Oraingoan bertsoak eta antzerkia nahasten dituen ikusgarria izanen da igande honetan, martxoak 2, Lurberrin, arratsaldeko 4etan. Kitzikazan/ktaldeak Mattin Irigoienek idatzitako zortzi antzezlan labur eskainiko ditu, ingurumena, ekologia, kontsumoa, biodibertsitatea eta kon-

postari buruzkoak. Loreak mendian, ondarkinak lurpian eta bideak gainian antzerki bertsoaldia izanen da. Publikoaren gozamenerako, aktoreek, ironia, absurdoa, ele zuzena eta metaforak nahastuko dituzte, hori guziaz, Jon Martin eta Patxi Iriarteren bertsoen laguntzarekin.

Iñaki Alzuet margoak

Falatsak - Berrontzak
 Dekoratibak (indak, botilak, ...)
 Plakatoak - Liburuak eta berriztatutako liburuak

Kaminoa Etxea - Lerdibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
 Tfona: 659 862 417

ERREKALDE

Plakatoak, konfekturak
 Pinturak
 Berriztatutako liburuak

Ongi pasa bestak!

Tfona: 948 430 259 - 6224

t tipi
 t tapa

☎ (0034) 948 635458

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
 Euskal Herriko preziorik hobereenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

BAR-OSTATU MON

ZATOZTE TRAGOA EDATERA

ESTANCO - TEBICO DENDA
 ANZEN-BORDE
 VRDIX - VRDIZYBI

ETXEGINTZA

Bidasoaldeko eraikuntza proiektuak tramitatzeko bulegoa ireki dute Donezteben

Nasursa elkarte publikoak kudeatuko du, Doneztebeko Juansenean hasteko

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren menpe dagoen Nasursa, *Navarra de Suelo Residencial Sociedad Anonima* elkarte publikoak zerbitzu berria eskainiko dio Bidasoaldeko eskualde guztiari. Bertzak bertze, etxebizitzak eraikitzeko eta zaharbertzeko proiektu guztiak tramitatuko dira. Proiektu berritzailea dena otsailaren 7an aurkeztu zuten, Baztan, Bertizarana, Bortziriri eta Malerreka aldeko udal ordezkarien aitzinean.

Hasieran hiru langile ariko dira, administraria, arkitekto teknikoa eta arkitektoa. Bulegoa



ARTXIBOA

Hasiera batean Doneztebeko Juansenean eskainiko da zerbitzua. Gerora, ordea, bulegoa Doneztebeko Merkatarien Karrikan paratzea da asmoa

Doneztebeko Oteiza auzoan dagoen Juanse-

nean paratu dute martxan, baina Nafarroako

Gobernuak Doneztebeko Herriko Etxearen pa-

rean, Merkatarien karrikan daukan egoitzan moldaketak egin ondok, bertan jarriko omen dute Nasursaren bulego berria. Hala adierazi zuen Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak.

Hain zuzen, bulegoa Doneztebeko Merkatarien karrikan jartzea eskatu zuen Doneztebeko udal korporazioak, herriari bizi gehiago emateko helburuarekin. Baita lortu ere. Horrela, Beratik hasi eta Urdazubi edo Ezkurra bitarteko bizilagunak Doneztebetik pasatu beharko dute gestioak egitera, eta horrek, karrika giroa berpiztuko duela pentsatzen dute Doneztebeko Herriko Etxean.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrea S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Martin Castor Ariztegi eta **M^a Nieves Mortalena Salaburu**, Erratzukoak, 2007ko abenduaren 1ean Erratzun.
Jabier Arozena Aranburu eta **Isabel Ballesteros Zelaieta**, Irungoak, otsailaren 2an Etxalarren.



SORTZEAK

Izaskun Endara Otxoteko, Berakoa, otsailaren 1ean.
Oxel Arburua Iturria, Etxalarkoa, ilbeltzaren 29an.
Gixane Telletxea Irisarri, Etxalarkoa, otsailaren 7an.
Sarai Burgete Migelena, Igantzikoa, otsailaren 7an.
Iris Alvarez Gartzia, Doneztebekoa, otsailaren 5ean.
Eki Ezkurra Sanz, Doneztebekoa, otsailaren 5ean.
Unax Bereau Irigoien, Lesakakoa, otsailaren 10ean.
Xuban Telletxea Buldain, Leitzakoa, urtarrilaren 25ean.

HERIOTZAK

Jose Ramon Arratibel Lujanbio, Goizuetakoa, otsailaren 7an, 64 urte.
Elena Uitz Anton, Goizuetakoa, otsailaren 8an, 46 urte.
Genaro Zelaieta San Sebastian, Berakoa, otsailaren 9an, 53 urte.
Dolores Elgorriaga Altzugarai, Berakoa, otsailaren 10ean, 88 urte.
Consuelo Etxeberria Mariezkurrena, Ezkurrakoa, otsailaren 12an, 55 urte.
Tomasa Doianbehere Gaztiarena, Arizkungoa, otsailaren 13an, 86 urte.
Felipe Telletxea Arregi, Oierregikoa, otsailaren 13an, 79 urte.
Felix Jauregi Majirena, Amaiurkoa, otsailaren 15ean, 90 urte.
Karlos Zabaleta Garro, Leitzakoa, otsailaren 16an, 73 urte.
Pedro M^a Mariezkurrena Telletxea, Iturengoa, otsailaren 17an, 70 urte.
Iñaki Aizpuru Iribarren, Narbartekoa, otsailaren 17an, 43 urte.
Joakin Oizartzabal Legasa, Lesakakoa, otsailaren 17an, 67 urte.
M^a Modesta Ariztegi Sanzberro, Etxalarkoa, otsailaren 18an, 92 urte.
Klarita Zozaia Urteaga, Elizondokoa, otsailaren 18an, 88 urte.
Jose Campos Guirado, Lesakan, otsailaren 17an, 86 urte.
Rosario Elizalde Jaunarena, Iturengoa, otsailaren 18an, 82 urte.
Ana Azkarraga Sarratea, Elizondokoa, otsailaren 18an, 93 urte.



Iñaki AIZPURU (Ina)

Otsailaren 17an hil zen,
43 urte zituela

Udazkeneko usoen antzera joan zara eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu ahaztuko. Orain gaude ezin konsolaturik bihotzean dugun pena Jaingoikoaren altzoan har ezazu atsedena.

ZURE LAGUNAK



Genaro ZELAIETA SAN SEBASTIAN

Beran, 2008ko otsailaren 9an

Adiskide bat bagenuen, benetan gizon gozoa gure bihotzean haren hutsunea bete ezinik joko z kanpo utzi gaituena

*Non hago, zer larretan
Zigardiko artzaina.
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
Unairengana joan hintzana.*

Maria Luisa, Iratxe, Amaia, Maritxu eta zuen familia guztiari:

ZUEN LAGUNAK

Gure elkartasuna adierazi nahi dizuegu une latz hauetan.

AIZKORA

Donato Larretxeak Binakako Urrezko Aizkolarien finala jokatu du igandean Azpeitian

Gazteetan Oihan eta Garikoitz Larretxea Olano eta Saralegiren kontra arituko dira.

ttipi-ttapa

Hirutik hiru. Hiru Larretxeatarrak igandean, martxoak 1, Azpeitian jokatu den Binakako Urrezko Aizkolarien txapelketako finalean izanen dira. Maila nagusian Donato Larretxea arituko da, Aitzol Atutxa bizkaitarra lagun duela. Eta gaztetxoan mailan, Garikoitz eta Oihan lehengusuek jokatu dute, bi leitzarren kon-

tra: Olano eta Saralegiren aurka, hain zuzen.

Donatok eta Atutxak otsailaren 10ean lortu zuten finalerako txartela. Getxon jokatu zen Binakako Urrezko Aizkolarien txapelketako lehen finalerdia irabazteko faboritoak ziren, eta beraiek lortu zuten finalerako txartela, nahiz eta lan aunitz egin behar izan zuten Nazabal eta Mugertza II.a men-



ARTXIBOA

Donato eta Oihan Larretxea aita-semeak igandeko finalean izanen dira, aita elite mailan Atutxarekin, eta gazteetan semea, Garikoitz lehengusuarekin.

dean hartzeko. Egin beharreko sei probetatik lautan garaitu zituzten etxarriarra eta mutrikuarra. Proba guztiak egiteko, 24 minutu eta 18 segundo behar izan zituzten Larretxeak eta Atutxa II.ak. 25 minutu eta bost segundo, be-

rriz, Mugertza II.ak eta Nazabalek.

Igandean Azpeitian jokatu den finalean aurrez aurre Arrospide eta Aierbe izanen dituzte. Guztira sei proba egingen dituzte.

Gazteen mailan ere lehia bizia espero da.

Oihan eta Garikoitz Larretxea lehengusuek, beratarrek eta arraioztarrak, Arkaitz Olano leitzarra eta Ruben Saralegi iruñearra (aita leitzarra) izanen dituzte aurrez aurre. Bortz proba egin beharko dituzte.

SOKATIRA

Euskal Herriko goma gaineko txapelketan ari dira Amaiurko mutilak eta Beti Gazteko neskak

680 eta 640 kilokoetan hirugarren eta laugarren gelditu da Amaiur

ttipi-ttapa

Abian da Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa. Dagoeneko 680 eta 640 kiloko pisuetako jardunaldiak joan dira, eta bata zein bertzea Abadiño Ak irabazi ditu. Baina txapelketak badu gure ordezkariarik ere: Amaiur. 680 kiloko kategorian, Amaiurrek hirugarren postua eskuratu zuen. Bortz talde

izan ziren lehian, eta Ñapurak eta Abadiño Aren gibeletik sailkatu ziren.

640 kilokoetan, berriz, laugarren gelditu zen Amaiurko taldea. Saio gehienetan hirugarren postuan joan bazen ere, azkenean laugarren akitu zuen, Abadiño A eta B eta Ñapurak taldearen ondotik.

Gizonezkoetan Euskal Herriko Txapelketa lau kategoriatan banat-



ARTXIBOA

640 eta 680 kiloko pisuen txapelketak erabakita, orain 600 eta 560 kilokoetan ari dira Amaiurkoak.

zen da, eta guztietan eman du izena Amaiurrek. Dagoeneko, 680 kiloko eta 640koak erabaki badira, orain 600 eta 560 kiloko pisuenak gelditzen zaizkie. Larunbat honetan, hain zuzen, ekinen diote 560 kiloetako lehiari. Igandean, berriz, Berriozar-

ren 600 kilokoetako lehia erabakiko da.

Martxoaren 8an 560 kiloetako bigarren saioa jokatu dute Oartzunen, eta azkena Lesakan, martxoaren 15ean.

Lesakako Beti Gazte taldeko emakumezkoak aurten estreinakoz Euskal Herriko lehi-

ere sartu dira, 480 kilokoetan. Otsailaren 16an ekin zioten txapelketari, eta igande honetan, martxoak 2, bigarren saioa jokatu dute Berriozarren. Martxoaren 8an Oartzunen izanen dira eta finala Lesakan erabakiko da, martxoaren 15ean.

FUTBOLA

Genaro Zelaieta Berako futbolari ohia hil da

Bi Liga eta Superkopa bat irabazi zituen Realarekin eta otsailaren 7an hil zen

Aitor AROTZENA

Genaro Zelaieta San Sebastian Berako futbolari ohia, otsailaren 9an hil zen, 53 urte zituela, gaixotasun luze baten ondorioz. Genarok Real Sociedad taldearen garairik gozoe-na ezagutu zuen eta Espainiako bi liga irabazi zituen talde donostiarrean. Europako Kopako finalerdietara ere ailegatu zen.

Gaur eguneko futbola segitzen duenari, akaso Genaro Zelaieta izenak ez dio gauza haundirik erranen. Baina realzale beterranoek buruz gogoratuko dute oraindik bi liga irabazi zituen Real historiko haren hamaikakoa: Arkonada atepean, Zelaieta, Olaizola, Gorritz eta

Kortabarria gibelean; Periko Alonso, Diego eta Zamora erdian eta Idigoras, Lopez Ufarte eta Satrustegi aitzinean. Orduan ez zen izarren ligarik, ezta talde galaktikorik ere, baina talde honek orduko Realzaleen ilusio guztiak bete eta izarretara eramane zituen, Real Madrid, Bartzelona eta bertze talde guztiak sailkapenean gibelean utziz. Realzaleek oraindik emozioz gogoratuko dute Xixonen lehendabiziko liga azken minutuan lortu zen partida hura.

Genarok, ordea, due-la lau urte ttipi-ttapa telebistako *Saso Batean* saioan aipatu zigunez, Euskadiko selekzioarekin Irlandaren kontra jokatutako partida gogo-

ratzen zuen bereziki, Espainiako gerra ondotik Euskadik jokatu zuen lehen partida, hain zuzen.

Genaro Zelaieta 1954ko azaroaren 9an jaio zen Berako Suspe-la auzoko Zigardi base-rrian. Gure Txokoan aritu ondotik, gazte-gazterik Donostiara joan eta Sanseren gazteen taldean hasi zen, eskuin lateralean. 1971n Sanseren lehen taldera pasatu zen eta sei urte eman zituen hirugarren mailan. 1978-79 denboraldian, 23 urterekin, Realaren lehen mailako taldean debuta egin zuen. 1979-80 denboraldian azpitxapeldun izan zen Real eta hurrengo bi denboralditan Espainiako Liga irabazi zuen, baita 1982an lehen al-



ARTXIBOA

Realeko jokalaria zela, taldearen momenturik go-goangarrienak bizitu zituen Genaro Zelaietak.

diz jokatu zen Espainiako Superkopa ere.

Realean 302 partida jokatu zituen Zelaietak, Ligako 229, Kopako 46, Europako Kopako 8, UEFAko 7, Superkopako 2 eta Ligaren Kopako 10 eta sei gol sartu zituen. Realean izan zen 1985-86 denboraldira arte eta handik Sabadellera jo zuen, han ere le-

hen mailan aritzera. 1988ko martxoaren 23an utzi zuen futbola. Espainiako selekzioan ere aritu zen.

Otsailaren 10ean Berako parrokia tiki gelditu zen, azken agurrera hurbildu zen jendetza-arentzat. Beti beratarren eta realzaleen bihotzetan geldituko da Genaro Zelaieta.

HARRI JASOTZEA

230 kiloko harria esku bakar batekin berdindu du Perurena II.ak

Esku bakarreko markatan, Iñaki aitaren gibeletik dago

ttipi-ttapa

Markaz marka dabil Inaxio Perurena leitzarra. Urtezahar Egunean bi eskuekin 290 kiloko harriarekin marka egin bazuen, otsailaren 10ean esku bakarrarekin 230koarekin ahalegindu zen. Baita asmaoa bete ere. 230 kiloko ha-

rrri zilindroa bizkarrean berdindu zuen, marka pertsonala lortuz. Esku bakarreko markari begiratuta, bigarren postuan dago Inaxio, eta aitzinetik bere aita bakarrik du, Iñaki, 267koa jasota.

Jasoaldi garbia egin zuen leitzarrak eta gustura geratu zen. «Oso

gustura nago. Jasoaaldi garbia eman dut, eta hori da garrantzitsua. Hala ere, plazan etxean gertatzen ez diren gauza asko gertatzen dira, eta gaur harria gerrira ekarri dudanean, irrist egin dit, eta apur bat behera joan zait, baina ongi moldatu naiz», erran zuen.



ARTXIBOA

Marka eginez bukatu zuen 2007a eta urte berria hasi eta berehala bertzea egin du Inaxiok.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttiipi.net (agenda)

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Otsailaren 29an, Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik *Lau ipuin pinpirin*, 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.

Martxoaren 14an, Miren Camison ipuin kontalariak *Animalien hitz sekretuak* izeneko ipuina kontatuko du 4-8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.

IKASTAROAK

BERA

Otsailaren 28an eta martxoaren 6an eta 13an, Komunitatean drogen mendekotasunari aurrea hartzeko ikastaroa, 18:00etatik 21:00etara. Izen emateko azken eguna: otsailak 26, 690 091185an edo askagintza@askagintza.com helbidean.

SUNBILLA

Martxoaren 6tik aitzinera, sukaldaritza ikastaroak.

BILKURAK

LESAKA

Martxoaren 5ean, Dolu-Babes taldearen bilera, Antoiu 27-2 aretoan, 19:30ean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 1ean, *Berri txarrak* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30ean. Sarrera: 12 euro aitzinetik, eta 15 euro takilan.

Martxoaren 8an, *Trikidantz* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30ean.

Martxoaren 19an, *Jalisko Band* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan. 00:30ean.

TELEBISTAKO TXOKOA



N-121A errepideko lanak solasgai ortziral honetan

TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO ERREPORTAJEAN

Astean bi egunetan, guttienez, leherketa kontrolatuak egiten dituzte N-121-A errepideko lanetan. Errepidea bi orduz itxiko dutela abisatzen dute, baina zenbaitetan etenaldiak gehiago luzatzen dira. Leherketarik ez dagoenetan ere, ibilgailuak mantso pasatzen dira. Herritarrak aspaldi eskatzen ari ziren N-121-A errepideko lanak hasi zituzten azkenean joan den urtean, eta akitu bitartean pazientziarekin hartzea gelditzen da. Erabiltzaile eta langileen iritzia jasotzeko Jose Manuel Igoa Lesakako kamioi gidariarekin, leherketen arduradunarekin eta Belateko kontrol zentruko arduraduna den Jo-

su Intziarterekin egon dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO** lankideak. Ortziral honetako erreportajeon, otsailaren 29an, paratuko dute ikusgai.

NAFARROAKO BERTSOLARI

TXAPELKETA

Bertalde, Nafarroako Bertsolari Txapelketako aurtengo edizio hau ere aitzinera doa. Dagoeneko finalaurrekoetan sartuak dira, eta azkena larunbat honetan jokatu da, Beran. Horren berri ere jasoko du **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**, eta hurrengo astean eskaini. Martxoaren 15ean Elizondon egindako finalarekin ere berdin egi-

DISKAK



Iñigo **BELZUNEGI**

Iturriabizigarri

ELIZONDO, 2008

Oraingo honetan gure eskualdean garatu den lan baten inguruan arituko gara. Lau kantaz osatua dagoen diska hau 2005eko maiatza eta 2006ko ekaina artean trafikatu istripu ezberdinetan zendutako Elizondoko Lander Santamaria, Jon Oskoz eta Aritz Plaza nahiz Errotxapeako Naiera Simonen omenez egina izan da. Kanten sortzaileagure inguruko hainbat taldeetan ibilitako (kaskezur edo Eko4 esaterako) Iñigo Belzunegi elizondarra dugu, lan honetarako Iturriabizigarri izena hartu duena. Diskaren grabazioan bazter ezberdinetako musikariak bildu ditu. Hala nola, Fernando Leiza baterijolea, Fabian baxua, Maider Ansa koroetan eta Roberto laben guitarrojole. Diskak Baztango Zubi-punta, Dolaetxea, Ilargi, Intza, Txokoto, Itzalargi nahiz Natura-etxean daude eskuragarri.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (otsailaren 8tik otsailaren 15era bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28,00 € (+3,00)

Zerri gizena
1,000 € kilo. (+0,025)

Zerramak:
0,320€ Kg/bizirik. (+0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16 (=)
1.koa 3,85 (=)
2.koa 3,29 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,28 (=)
1.koa 3,97 (=)
2.koa 3,39 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,08/3,18
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,10/5,70
8-10 kilokoak: 3,80/4,90

JAKIN BEHARREKOAK

Hipotekak luzatzeak kuotan eragin handirik ez duela erran du Irachek

Ez da komeni diru-sarrerren %35a baino gehiago hipotekara bideratzea

Duela gutti arte, ez zen batere normala 30 edo 40 urterako hipoteketaz solastea. Baina etxebizitzaren prezioaren igoeraren ondorioz, 35, 40 edo baita 50 urterako hipotekak ere, bere lehen etxebizitzara sartu nahi duten aunitzentzat azken aukera dira. 35 edo 40 urterako hipoteka kontratatzea, eskatzen duenaren lanbizitza osoa konprometitzea dakar, hau gaztea baldin bada, noski. 50 urterako hipotekaz ari garenean, amortizazio epea erretiroa arte ere luzatzen da.

Baina 30 urte baino gehiagorako hipoteken errentagarritasuna eztabaidagarria da. 20, 25 edo 30 urterako hipotekekin alderatuta, hilabeteko kuotaren jautsiera ez da batere nabarmena eta, aldez, maileguaren truke ordaindu be-

	20 urtera	30 urtera	40 urtera	50 urtera
Hilabeteko kuota	988,51€	806,49 €	726,11€	685,07€
Ordaindu beharreko interesak	88.704,06€	141.795,76€	199.995,86€	262.497,34€



harreko interesen igoera hagitz handia da.

Nafarroako etxebizitza-hipotekaren bidez bertzekoa hartuz, hau da, 148.538 euroko hipoteka, eta interes-tipoa %5,10ean finkatuz, hipotekaren amortizazio epea 30 urtetik 40 urtera luzatzeak hilabeteko kuotan 80,38 euroko jautsiera dakar, Baina ordaindu beharko ditugun interesak 58.200 euro gehiago izanen dira. Abantaila orandik ttikiagoa

izanen da, mailegua itzultzeko epea 40 urtetik 50 urtera pasatuta. Kasu honetan, hilabeteko kuota 41 euroan bakarrik jautsiko da, baina ordaindu beharreko interesak 62.500 euroan handituko dira.

Zenbait kasutan, berriz, kontsumitzailearentzat mesedegarria izaten ahal da hipoteka-mailegua luzatzea, honek duen egoera ekonomikoren arabera. Adibidez, epea 20 urtetik 30 ur-

tera luzatuta. Interes gehiago ordaindu beharko dugu, 53.000 euro inguru, baina hileroko kuotan 182 euroko jautsiera nabarmena izanen dugu.

Dena dela, interes tipoen igoera dela eta kontsumitzaileendako oinarrizkoak diren produktuen prezioen igoera kontuan hartuz, Irache elkartetik berriz ere azpimarratu dute ez dela komeni diru-sarrerren %35 baino gehiago erabiltzea hipoteka mailegua or-

LIBURUAK



Elvis hil zen urtean

Xabier MENDIGUREN

ELKAR, 2007

Gauza aunitz gertatu zen Elvis hil zen urtean. Ametsetan ugari bezain esperientzietan urri zebiltzan Edu, Rober eta Etxe dira nobela honetako protagonistak. Istorioa tamaina ertaineko hiri industrial batean girotuta dago, Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua izan zen 1977. urte hartan. Protagonistak hamabortz urte bete berriak edo betetzear dituzten hiru lagun dira, eta beren solas eta bizikizunetan neskak, musika, drogak, poli-

tika eta bertze hainbat kontu azalduko dira. Adoleszentziako garai lanbrotsua xarmaz erretratatzearekin batera, garai nahasi bezain erakargarri baten berri ematen digu egileak. Nerabezaroa aitzakiatzat hartuta, 1970eko hamarkada bukaerako euskal gizartearen inguruko gogoeta egin du. «Nik bezala 40 urtetik goitiko edornok ezagutu du giro hura, eta bere burua pasarte batean edo bertzean islatuta ikusiko du», dio idazleak.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Martxoaren 2an, Oteixonera ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak elkarteak.

Martxoaren 9an, Otxaskora mendi ateraldia Baztango Mendigoizaleak elkarteak antolatuta.

ZINEA

LEITZA

Otsailaren 29an eta martxoaren 2an, *Deseo, peligro* filma ikusgai, Ang Lee zuzendariarena. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

Martxoaren 7an eta 9an, Lucia Puenzoren *XXY* filma ikusgai egonen da. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

Martxoaren 14an eta 16an, Kenneth Branagh zuzendariaren *La flauta mágica* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

BERTSOAK

BERA

Martxoaren 1ean, Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren finalaurrekoa, 18:00etan Kultur Etxean.

ELIZONDO

Martxoaren 15ean, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. 17:00etan Lur dantzalekuan.

HITZALDIAK

LESKA

Otsailaren 29an, *Pobreziak emakumearen aurpegia du* izeneko hitzaldia eskaniko du Miren Aranguren Bilgune Feministako kideak Arrano Elkarteak, 20:30ean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kuxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
BERA-LESAKA.
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.
DONEZTEBE.
- Partzela urbanizatua salgai.
DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.
- Pisuak, apartamentuak, baserriak, etxeak, bordak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberritu beharrekoak.

PROMOZIO BERRIAK.
GARTZAIN.
- Familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.
IRAIZOTZ.
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trastelekua eta aparkalekua.
AGOITZ.
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- Nabe eta lur eremu industrialak.
ORONÓZ-MUGAIRI.
- Bi familiako etxebizitza lur eremuarekin.
ELIZONDO.
- Adosatuko lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurraekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. 40 milioi pza. %678 526091.



IRUN. 87m²ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Mobleztatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. %629 032752.

ZUGARRAMURDI. Bifami-

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuko bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

andueza INMOBILIARIA

NARBARTE.
- 150m²ko pisuak, 20m²ko ganaxa, 100m²ko baserriarekin.
30.500.000 Pza

- Lur eremu irakurgina 3.000m². Toki esan hobea 75.000.000 Pza

GAZTELU.
- Bi familiako etxebizitza salgai. 300m²ko trastelekua. 42.000.000 Pza

DONEZTEBE.
- Hiru eratan, 107m²ko pisu berria salgai 42.000.000 Pza

ORONÓZ.
- Etxe berriarekin dagoen apartamentuak salgai. 150.000€

- 140m²ko pisuak salgai. 120.000€

- Etxe berriarekin dagoen 110m²ko etxebizitza berria berritu solairuak salgai. Lorategiarekin 200.000€

ELIZONDO.
- 130m²ko 3 etzeak salgai. Solairu bakarreko apartamentuak salgai. Oro eremua. 400m²ko lur eremuarekin.

BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87
www.habitaz24.com/andueza

lientzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea,



Baztango

promoción inmobiliaria

PROMOZIO BERRIAK:
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako erakinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu pertsonalizaturako aukera.
BERA: Zaharberritutako eraikin tradizionalen, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster ematen dira.
DONEZTEBE: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako erakinean. Errehabilitazio zerrenda irekia.

Katzenberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

N-121 Auzo UNGOLETZAN!
ERREKAT HARTSUN
PISUA BERRI DINA,
HARTSUN IRURIA.

609 708797

egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia. 295.000 euro. %615 744433.

BENICARLO (Castellon).

Pisu berria salgai. 108.000 euro. % 608 357617 (22:00etatik aitzinera deitu).

ERATSUN.

Bizitzaren jartze-ko moduan dagoen etxebizitza mobleztatua salgai. Lur-eremua badu. %609 404229.

DONEZTEBE.

80m²ko pisu mobleztatua salgai, 15m²ko ganbararekin. Gela guztiek kanpora ematen dute eta bi balkoi ditu. Etxetresna berriak. %607 890923.

LESAKA.

110m²ko etxebizitza salgai, Bittirian. Bista onak eta prezio ona. %670 319380 607 769519/ 948 637347.

LEGASA.

Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bista onak eta prezio negoziagarria. %649 555686.

IRUN.

Hiri erdialdean 93m²ko apartamentua salgai. 2 logela, sukalde amerikarra, bainugela, berogailua eta terraza ttikia. Mobleztatua eta zaharberritua. 195.000 euro (33 milioi pza) %636 858512.

BERA.

3 logelako pisua sal-

gai, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 140.000 euro. %609 708797 (goizez).

ETXEBIZITZAK

109 Errentan eman

IRUÑA.

Pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde ekipatua bizitzaren jartze-ko. Garajea eta autobus-garalekua. Buztintxurina. %637 136542/ 689 950350.

DONEZTEBE.

Zazpigarutze auzoan 104m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 komun eta trastelekua. %638495653.

IRUÑA.

Mendebalde zonaldean (Irunlarrea kalea) 120m²ko pisua errentan emateko. 4 logela eta guztiek kanpora ematen dute. Egongela eta sukalde ederrarekin. %948 351822.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. %659 609678.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan emateko

ELIZONDO. 60m²ko lokal komertziala errentan emateko. Berogailua eta komunarekin. Komertzio bat jart-

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

☞ Langile autonomoak	☞ Diru-laguntza ezberdinak
☞ Nekazariak eta mendi langileak	☞ Kontabilitateak
☞ Nominak eta Aseguro Sozialak	☞ IVA eta IRPF
☞ Lan-Kontratutarako laguntzak	☞ Errenta altorpenak
☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea	☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
artekari@artekari.com	☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESACA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713



ZDANSA
MARKA GUZTIAZ KONPONKETA

Banarita: 2 - Alkaleja Industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

zeko prestatua. Toki onean.
%655 556422.

LANA 301 Eskariak

Neska euskaldun batek edozein lan eginen luke.
%669180779.

Emakume euskaldun batek adineko pertsonekin lan eginen luke, gauzez eta goizez.
%664 545925.

LANA 302 Eskaintzak

SUNBILLA. Kanpinean eguneroko lan egiteko zerbitzaria behar da. %948 450540 (12:00etatik 16:00etara).

OITZ. Posadan zerbitzaria behar da, biasteburitik behin lan egiteko. %948 451951.

ELGORRIAGA. Sukaldaria behar da. %646 425953 / 637744717.

SUNBILLA. Urte inguruko bi haur zaintzeko pertsona behar da. Astelehenetik ortziralera, 7:30-12:30. %678 537607.

LESACA. Atxaspi Ostatuan zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. %948 637536.

IRUN. Ola sagardotegian urte osoan sagastiak garbitu eta bertze lanetarako mutila behar da. %639 736767.

IRUN. Ola sagardotegian urte osoan neska zerbitzaria

behar da. %639 736767.
BERAedo LESAKA kopersona bat behar da egun erdiz denda batean lanean aritzeko. emitxele@yahoo.es.

MOTORRA 501 Salerosketak

Renault Twingo Easy autoa salgai, 1995ekoa. Merke. %948 630542.

Volkswagen Touareg mendiko autoa salgai. Beltza da, 2005ekoa, extra aunitzekin. 35.000 km, egoera onean. %661 277945.

Golf IV TDI autoa salgai, 2000ko azarokoa, 100 CV, txuria, 5 ate, klimatizagailua, mp3a. Egoera onean. %620 249262.

Beta Ark motorra salgai, 50 c.c. %943 009233 / 630822018.

Audi A4 2.0 TDI 140 AVANT. 2005ekoa, 88.000 km. GPSa, larruzko besaulkiak eta abar. Hagitz ekipatua. %669 312220.



Motoa salgai. Moto trail Honda MTX 125 R. 1992koa. merke. %618 774322.

SUZUKI King Quad 700 4x4

automatikoa salgai. Gorria, 2007koa. Egoera onean, gutti erabilia. %628 408722 (Mikel)

Renault Megane Cupe salgai, diesela. %680 475419.

Bigarren eskuko **motoa** salgai, Honda 650 cc, Dominator. 47.000 km, egoera onean. %696 694405 (gauzez).



MOTORRA 502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA (6-12 hilabeteak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Clio Comfort 1.5 DCI.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI (gasolina eta diesela)
MITSUBISHI (luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK

601 Emateko

5-8 hilabeteako **artzain zakurra** oparitzeko, parasitoak kenduak eta txertatua. %630 118538.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

10 **ardi**, 6 **artantxo** eta 2 **ahariko** salgai. %948 634053.

ETXALAR. 20 **erle** saltzeko, Perfeccion. %948 635174.00

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

Antejo borobil xaharrak (alanbre malguzko besok) **galdu** nituen inauterietako astelehenean, otsailaren 4an, Beran. Balio sentimental handi xamarra dute. Inork aurkitu baditu deitu: %605 453499.

Urrezko belarritako bat agertu da Berako Elizako eskaileretan, otsailaren 11n aurkitua. Belarritako zintzilikaria da. %670 305441.

BERAko Nabasturen inguruan monedero zuri-beltza agertu da, belarritako eta giltzekin. %948 635458.

DENETARIK 702 Salerosketak

Mengascini markako **akordeoia** salgai. 96 bajo ditu. 3 urte. %638 938401.

Hainbat gauza salgai: kotxeko kateak (15 eurotan, 165-190 gurpilentzat); Play Station bolantea (25 eurotan) eta irrati kaseta-CDa autorako (50 eurotan). %617 225157.

Sukalde ekonomiko salgai, alemana, kalefaktora eta egoera onean dagoena. %656 786517.

Zakurrarentzako karroa salgai. %948 450767.

Estreinatuta gabeko **egongela, jangela eta logelako altzariak** eta **barbakoa** salgai. %948 592031 / 620022620.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Kotxe zahar bat berehala eta luzaro mugitu gabe uzteko lekua behar da: **pabiloia, lonja...** %636 072732.

HARREMANAK 801 Agurrak

Doneztebeko atautxi **Serapiok, Maite** alabak eta **Xabi** eta **Gogor** lehengusuek urteak bete dituzte otsailaren 24an, 19an, 21ean eta 10ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Hiru Olentzero elkarrekin...! Hiru urte nere anaitzak! Zorionak ENER Arantzako eta Sunbillako familiaren partetik. Mua!



IZARO ETXEPARE ELRIO beratarak 4 urte bete ditu otsailaren 21ean. Muxu handi bat Olatz, Jone eta familiaren partetik. Zorionak pizpireta!



IZAROK urtarilaren 21ean eta ONINTZEK otsailaren 17an urteak bete dituzte. Zorionak etxeko printzesa eta gorditari.



GARAZI UBIRIA GARMENDIAK otsailaren 24an 3 urte bete ditu. Zorionak ataxi-amatxi, osaba-izebak eta Miguelen partetik. Hiru muxu haundi zuretatz



XUBAN BENGOTXEA BIDEKAIN erratzuarrak otsailaren 24an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Idaborroko familiaren partetik.



Erratzuko JOKIN BENGOTXEA, IDOIA BIDEKAIN eta XUBAN BENGOTXEA BIDEKAINK otsailaren 22an, 23an eta 24an urteak bete dituzte. Auniz urtez hirukote!



JAIONE IRIGOIEN arantzarrak 24 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Auniz urtez preziosa! Azterketak akaututa ea noiz ospatzen dugun e!



AIMAR BERTIZ CABANESK martxoaren 4an lehenengo urtea beteko duelako muxu haundi bat Etxalarko ataxi eta amatxiren partetik. Zorionak sorgintxo.



AIMAR BERTIZ CABANESK urtea beteko du martxoaren 4an. Zorionak osaba-izeba eta bereziki lehengusu Georgiren partetik. Muxu bat. Maite zaitugu.



HAIZEA eta LUCIA SANZ doneztebarrak 3 urte bete dituzte otsailaren 25ean. Zorionak attatto eta amatoren partetik.




Lesakako GARAZI UBIRIAK 3 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak monona, muxu haundi bat attatto eta amatoren partetik.



NEREA SANTETEBAN MUTUBERRIA tolosarrak 6 urte bete ditu otsailaren 18an. Zorionak Errenteriko familia eta bereziki Iratiren partetik. Muxu potoloak.



MAIALEN EZKURRA APEZETXEA "sagutxo" doneztebarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 27an. Mila muxu aita, ama eta familia guztiaren partetik.



Aranoko MIKEL LEONET AROZKANAK otsailaren 10ean 2 urte bete ditu. Aranoko eta Oartzungo familiaren partetik zorionak eta muxu haundi bat politta.



JON ARRIZURIETA TELLETXEAK 6 urte bete ditu otsailaren 12an. Zorionak Jontxo familiaren partetik, batez ere arreba Naroaren partetik. Muxuuuuuuuu.




Iruñeko UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENK 3 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat atautxi eta amatxiren partetik.



Aribeko JULENE ELIZONDO INDABURUK 4 urte bete ditu otsailaren 20an. Zorionak eta muxu bana Etxalarko ataxi, amatxi, izeba, osaba eta lehengusuen partetik.



KOTOK 42 urte beteko zituen martxoaren 3an. Zorionak zauden lekura eta muxuak maitasunez etxekoan partetik.



Etxalarko GOIATZ JAUREGI MARTINEK 11 urte beteko ditu martxoaren 1ean. Zorionak familia guztiaren eta bereziki anaia Enauten partetik.



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarak otsailaren 22an 3 urte bete ditu. Zorionak traketsa eta ongi pasa urtebetetze egunean Berako familiaren partetik.



ALAITZ IRIARTE GOMEZ beratarak otsailaren 22an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Irungo familiaren partetik.



Goizuetako UXUE AIZKORBE HERRERAK otsailaren 21ean urtea bete du. Zorionak eta muxu haundi bat aitaxo eta amatxoren partetik.



KIARA TRIGUEROS RUIZ beratarak bere lehendabiziko urtea beteko du martxoaren 6an. Zorionak atxa eta amaren partetik. Muxu bat etxeko printzesari.



Berako KIARA TRIGUEROS RUIZEK urtea beteko du martxoaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat amatxi, ataxi eta Naiararen partetik.

Sagarretik sagardoa
DVD eta GIDAren

ZOZKETA

Ttipi-txartela baduzu,
eta parte hartu nahi baduzu!!
DEITU martxoaren 6a baino lehen
948 635 458ra.

**Ttipi-txartelarekin
beti irabazten da!**

Deskontuak, zozketak,
aldizkaria doan...

Eskatu zurea 948 635 458 telefonoan

5ale
zozketarako gura

ola
SAGAROTEGIA



Muebles
Telletxea

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12
Tfnoa: 948 450 258 • 948 451 811

**ERAKUSTOKIKO
ALTZARITAN**

**SEKULAKO
DESKONTUAK**

**AZKEN
EGUNAK**

**LABIAGA
IKASTOLAN**

MATRIKULAZIO EPEA
MARTXOAREN 10etik 17ra

**TANTIRUMAIRU
IKASTOLA**

MATRIKULAZIO EPEA,
MARTXOAREN 10etik 17ra.

LaNKideTZA eta pARteidEza
Cooperación y participación

ELeAnITza
Puntuingie

HeZKuNTza • kuLTUra
Educación • cultura

BeReZko ProIekTu peDaGosIKoa
Proyecto pedagógico propio

948 630 172 (BERA) **EUSKARAZ** 948 637 308 (LESKA)



BORTZIRIETAN

IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104

- Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019

- Doan



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829

- Jantoki eta garraio zerbitzuekin



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215

- Integratzailea



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006

- Teknologi berriez baliatuta



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

- Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan

- DBH, Batxilergoak eta LH bertako Institutuan

Txikiak hezitzuz handitu

Haur eta Lehen Hezkuntza martxoaren 10tik 17ra
DBH martxoaren 31tik apirilaren 7ra